ikuspegi@k

Gizarte Gaien Behatokiak
Observatorios de Asuntos Sociales

Haur eta Nerabeen behatokia
Observatorio de Infancia y Adolescencia

# EAEko haur eta nerabeei buruzko diagnostikoa

## 2011ko maiatza

Ikerketa Sozialen Zerbitzua

edefundazioa

Servicio de Investigación Social

# Aurkibidea

Sarrera .......... 4
Haurren eta nerabeen zifrak .......... 6
Familia .......... 7
Osasuna eta sexualitatea .......... 16
Eskola-ingurunea .......... 27
Aisia eta astialdia .......... 37
Ingurunea .......... 45
Arriskuko eta gizarte-babesgabetasuneko egoerak .......... 55

## Sarrera

Azken urteotan, lan handia egin da haurren eta nerabeen egoeraren inguruan, eta hobekuntza nabarmenak lortu dira mundu osoan. Estatuak **1990ean Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa** –Nazio Batuen Erakundearen Batzarrak urtebete lehenago aho batez erabaki zuena– berretsi izanak sendotu egin zuen haurren eta nerabeen eskubideen aintzatespena zein kolektibo horren aintzatespen soziala. Dena dela, kolektibo horren eskubideak babesteko esparru unibertsala den Konbentzio horrez gain, haurrak eta nerabeak eraginpean hartzen dituzten arlo sektorialei (haurren lana, adingabe-ostea, sexu-esplotazioa, nazioarteko adopzioa eta abar) lotutako nazioarteko hainbat itun, Espainian aplikatu beharreko Erkidegoko araudia, eta nazioarteko erakundeek eman dituzten eta haurren eskubideen aintzatespena, errespetua eta aplikazioa iradoki, bideratu eta osatzen duten Ebazpen eta Gomendio ugari berretsi ditu Espainiako Estatuak.

Autonomia-erkidegoek, beren legegintza-ahalmena betez, nabarmen garatu dute adingabeen eskubideen babes eta sustapenaren arloko autonomia-legeria. Ildo horretan, **Gizarte Zerbitzuen 5/1996 Legea eta geroago onartutako Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legea** eta, batez ere, **Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea** azpimarratu behar dira Euskadin. Adierazi beharrekoak dira, halaber, **seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde arteko planak**. Horien bidez, familiari lotutako arazo eta fenomeno berriei erantzun nahi zaie.

Duela gutxi, haurren eta nerabeen arloko hainbat erakunde sortu dira, hala nola **Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoa** (erakunde hori haurrak babesteko egiten ari zen lana sendotuko duena) eta Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren **Familiaren, Haur eta Nerabeen, Gizarte Zerbitzuen eta Immigrazioaren Behatokiak (Ikuspegi@k-Gizarte Zerbitzuen Behatokiak markapean bateratuak)**. Azken horiek hainbat arlotako azterketa, ikerketa, dokumentazio, aholkularitza eta ebaluazioari lotutako eginkizunak betetzen dituzte.

Ildo horretan, azpimarratu beharra dago azken urteotan haurrei eta nerabeei buruzko ikerketetan egindako lana. Diagnostiko honen oinarrizko dokumentuak honako hauek dira: *EAEko haur eta nerabeen egoerari buruzko azterlana, haien eskubideen eta bizi-kalitatearen ikuspegitik*[1], *EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa*[2], *EAEko haur eta nerabeen errealitatearen jarraipena egiteko adierazleen sistema*[3], Estatuko planak[4] eta hainbat erakunderen dokumentu esanguratsu batzuk[5]. Horiei guztiei esker, haurrei eta nerabeei lotutako ekintzak abian jartzeko oinarrizko esparrua izango den EAEko Haur eta Nerabeen I. Plana kokatu ahal izango da.

---

1 HAUR ETA NERABEEN DEFENTSA BULEGOA. Haur eta nerabeen egoerari buruzko azterlana, haien eskubideen eta bizi-kalitatearen ikuspegitik. 2009.

2 EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Gaietako Saila. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

3 EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Gaietako Saila. EAEko haur eta nerabeen errealitatearen jarraipena egiteko adierazleen sistema. 2011

4 Honako hauek azpimarra daitezke: Haur eta Nerabeei buruzko Plan Estrategiko Nazionala (2006-2009). Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa; Kataluniako Haur eta Nerabeen Gida Plana (2010-2013). Kataluniako Generalitatea; eta Madrilgo Erkidegoko Haur eta Nerabeak Zaintzeko II. Plana.

5 Honako hauek azpimarra daitezke: Espainian haurren ongizateari buruzko adierazle-sistema baten proposamena; Gazteen adierazleak 2009. Gazteen Euskal Behatokia; Adingabekoei balioak transmititzea. ARARTEKOAREN txosten berezia; EAEko nerabeak. Hurbilketa bat ahalduntzetik. 2008 EMAKUNDE.

Dokumentu honen bidez, haur eta nerabeen errealitatearen eta horiek gaur egun dituzten premien ikuspegi bat (ahalik eta hurbilena) eskaini nahi da, hots, hainbat ikuspegitatik (hala nola haur, nerabe, irakasle eta abarren ikuspegietatik) eta adierazle objektibo eta neurgarrien bidez kolektibo horren hobekuntzara bideratutako etorkizuneko jardunei buruzko pistak emango dituen diagnostiko bat.

Kontuan hartu behar da ulertzeko eta aztertzeko konplexua den kolektibo baten errealitatearen interpretazio bat, ikuspegi heldu bat dela, kolektibo horren lekuan jartzea eragozten duen eboluzio-oztopo bat baitago. Nerabezaroa batez ere, aldatzeko, nortasun pertsonala osatzeko, bere burua ezagutzeko eta esperimentatzeko garaia dela ulertu behar da, eta horrek helduen munduarekiko asaldura, segurtasun pertsonalik eza eta abar dakartza. Garai hori zaila da helduen ikuspegitik ulertzen, baina beharrezkoa da aldi horretan murgiltzea eta haren konplexutasunean aztertzea.

Gainera, ez da ahaztu behar haurrak eta nerabeak aurreko belaunaldien emaitza den testuinguru batean jaio eta hazi direla, eta horrek alderdi positiboak eta negatiboak dituela. Ildo horretan, bereziki aipatu beharra dago gizarte dinamiko batean garatzen ari direla. Gizarte horrek informazio ugari sortzen du denbora errealean, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak oso garrantzitsuak dira. Edonola ere, haurrek eta gazteek helduek baino askoz neurri handiagoan egokitu eta barneratu dituzte teknologia horiek (helduak teknologia horien eraginari eta ondorioei buruz eztabaidatzen ari dira oraindik). Horrek zuzeneko eragina du bizitzeko eta bizitza ulertzeko moduan, eta eraldatu egiten ditu orain arte sozializatzeko eta komunikatzeko zeuden moduak.

Gaur egungo haurrak eta nerabeak ez dira duela urte batzuetakoak baino hobeak, ezta txarragoak ere. Beste errealitatean bizi den beste kolektibo bat da, eta nekez konpara daitezke biak. Nolanahi ere, kolektiboa hobetzera bideratutako diagnostiko batek identifika daitezkeen elementu ezegonkorrak eta kaltegarriak landu behar ditu, haurren eta nerabeen premiei eta eskariei erantzuteko.

## Haurren eta nerabeen zifrak

2010ean, **18 urtetik beherako 339.048 haur eta nerabe** daude guztira Euskadin, eta % 48,6 neskak dira. Adingabeen kopurua aurreko hamarkadakoa baino handiagoa bada ere, proportzioak ia bi puntutan egin du behera 2000. urtekoarekin (% 17,3) alderatuta. Izan ere, gaur egun adingabeak **biztanle guztien % 15,6 dira,** eta esan beharra dago ehuneko hori Espainiako Estatuko adingabeen ehunekoa baino txikiagoa dela (% 17,5 Estatuan).

2010. urtean, 18 urtetik beherako guztiak kontuan hartuta, **3 urteko edo 3 urtetik beherako haurrak % 24,8 ziren** (83.947 haur), eta zifra hori 2000. urtekoa (% 20) baino nabarmen handiagoa da. Nolanahi ere, igoera hori **atzerriko adingabeen kopuruaren** gorakadak ekarri du (horien proportzioa % 5,5 zen 2007. urtean, eta **% 7,4 2010. urtean**). Hala ere, EAEko atzerriko adingabeen proportzioa Espainiako Estatukoa baino ia bost puntu txikiagoa da (% 12 Estatuan)[6].

1. TAULA: 0-17 URTEKO ADINGABEEN KOPURUA, SEXUAREN ARABERA. 2000, 2007 ETA 2010.

| | 2000 | | | 2007 | | | 2010 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Bi sexuak | Mutilak | Neskak | Bi sexuak | Mutilak | Neskak | Bi sexuak | Mutilak | Neskak |
| 0 urte | 15.631 | 7.975 | 7.656 | 19.920 | 10.259 | 9.661 | 20.847 | 10.834 | 10.013 |
| Urte 1 | 16.164 | 8.392 | 7.772 | 19.902 | 10.175 | 9.727 | 21.576 | 11.099 | 10.477 |
| 2 urte | 16.116 | 8.382 | 7.734 | 20.068 | 10.247 | 9.821 | 20.942 | 10.759 | 10.183 |
| 3 urte | 15.895 | 8.077 | 7.818 | 19.806 | 10.196 | 9.610 | 20.582 | 10.581 | 10.001 |
| 4 urte | 15.379 | 7.978 | 7.401 | 18.726 | 9.472 | 9.254 | 20.439 | 10.474 | 9.965 |
| 5 urte | 15.189 | 7.757 | 7.433 | 18.367 | 9.527 | 8.840 | 20.494 | 10.455 | 10.039 |
| 6 urte | 15.779 | 8.135 | 7.644 | 18.200 | 9.387 | 8.813 | 20.119 | 10.370 | 9.749 |
| 7 urte | 16.089 | 8.275 | 7.814 | 17.768 | 9.064 | 8.704 | 19.141 | 9.686 | 9.455 |
| 8 urte | 16.091 | 8.272 | 7.819 | 16.905 | 8.740 | 8.165 | 18.757 | 9.719 | 9.038 |
| 9 urte | 16.325 | 8.310 | 8.015 | 17.068 | 8.820 | 8.248 | 18.596 | 9.608 | 8.988 |
| 10 urte | 16.797 | 8.588 | 8.209 | 16.698 | 8.477 | 8.221 | 18.159 | 9.252 | 8.907 |
| 11 urte | 17.485 | 8.840 | 8.645 | 16.081 | 8.363 | 7.718 | 17.259 | 8.914 | 8.345 |
| 12 urte | 17.984 | 9.221 | 8.763 | 15.942 | 8.154 | 7.788 | 17.582 | 9.078 | 8.504 |
| 13 urte | 19.364 | 10.022 | 9.342 | 16.416 | 8.446 | 7.970 | 17.124 | 8.729 | 8.395 |
| 14 urte | 20.336 | 10.417 | 9.919 | 16.731 | 8.639 | 8.092 | 16.578 | 8.581 | 7.997 |
| 15 urte | 21.199 | 10.955 | 10.244 | 16.711 | 8.590 | 8.121 | 16.424 | 8.445 | 7.979 |
| 16 urte | 22.627 | 11.558 | 11.069 | 16.910 | 8.643 | 8.267 | 16.966 | 8.782 | 8.184 |
| 17 urte | 24.237 | 12.399 | 11.838 | 17.565 | 9.013 | 8.552 | 17.463 | 9.134 | 8.329 |
| Guztira | **318.687** | **163.553** | **155.135** | **319.784** | **164.212** | **155.572** | **339.048** | **174.500** | **164.548** |

Iturria: EIN. Udal Erroldaren berrikuspena. Geuk egindako taula.

2. TAULA: 0-3 URTEKO ADINGABEEN KOPURUA, SEXUAREN ARABERA. 2000, 2007 ETA 2010.

| | 2000 | | | 2007 | | | 2010 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Bi sexuak | Mutilak | Neskak | Bi sexuak | Mutilak | Neskak | Bi sexuak | Mutilak | Neskak |
| 0 urte | 15.631 | 7.975 | 7.656 | 19.920 | 10.259 | 9.661 | 20.847 | 10.834 | 10.013 |
| Urte 1 | 16.164 | 8.392 | 7.772 | 19.902 | 10.175 | 9.727 | 21.576 | 11.099 | 10.477 |
| 2 urte | 16.116 | 8.382 | 7.734 | 20.068 | 10.247 | 9.821 | 20.942 | 10.759 | 10.183 |
| 3 urte | 15.895 | 8.077 | 7.818 | 19.806 | 10.196 | 9.610 | 20.582 | 10.581 | 10.001 |
| Guztira | **63806** | **32826** | **30980** | **79696** | **40877** | **38819** | **83947** | **43273** | **40674** |

Iturria: EIN. Udal Erroldaren berrikuspena. Geuk egindako taula.

[6] ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALA (EIN), Udal Erroldaren berrikuspena. 2000 eta 2010

## Familia

2008. urtean, EAEko **127.895 etxekoen unitatek** zituzten **16 urtetik beherako adingabeak** (hau da, EAEko familia guztien % 16k), eta **62.038** etxekoen unitatek zituzten **3 urtetik beherako** seme-alabak (hau da, EAEko familia guztien % 8k)[7].

3. TAULA: EAE-KO ETXEKOEN UNITATEAK, DITUZTEN ADINGABEEN ARABERA (%). 2008

| Etxekoen unitate motak | 16 urtetik beherako adingabeak dituzten etxekoen unitateak | *16 urtetik beherako adingabeen portzentajezko banaketa* | 13 urtetik beherako adingabeak dituzten etxekoen unitateak (*) | *13 urtetik beherako adingabeen portzentajezko banaketa (*)* | 3 urtetik beherako adingabeak dituzten etxekoen unitateak | *3 urtetik beherako adingabeen portzentajezko banaketa* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **16,1** | ***100,0*** | **19,4** | ***100,0*** | **7,9** | ***100,0*** |
| Pertsona bakarrekoa | 0,0 | *0,0* | 0,0 | *0,0* | 0,0 | *0,0* |
| Kide anitzekoa, ahaidetasunik gabe | 1,9 | *0,2* | 0,0 | *0,0* | 1,4 | *0,2* |
| Familia, nukleorik gabe | 0,0 | *0,0* | 0,9 | *0,1* | 0 | *0* |
| Seme-alabarik gabeko ezkontideak | 0,0 | *0,0* | 0,0 | *0,0* | 0,0 | *0,0* |
| Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak | 29,3 | *89,2* | 50,5 | *88,8* | 20,0 | *90,3* |
| Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak | 0,1 | *0,1* | 0,2 | *0,1* | 0,2 | *0,3* |
| Seme-alabak izan dituzten ezkontideak | 0,2 | *0,1* | 0,2 | *0,1* | 0 | *0* |
| Mendeko seme-alabak dituzten ezkontide izandakoak | 27,5 | *5,6* | 21,2 | *4,8* | 8,5 | *3,3* |
| Mendeko seme-alabarik ez duten ezkontide izandakoak | 0,0 | *0,0* | 0,0 | *0,0* | 0,0 | *0,0* |
| Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra | 31,0 | *0,4* | 55,2 | *1,2* | 24,7 | *5,9* |
| Mendeko seme-alabarik ez duen guraso bakarra | 0,0 | *0,0* | 0,0 | *0,0* | 0,0 | *0,0* |
| Nukleo anitzekoa | 19,8 | *4,6* | 50,4 | *4,8* | 24,7 | *5,9* |

Iturria: 2008ko etxekoen unitateei buruzko inkesta eta 2004ko etxekoen unitateei buruzko inkesta.
(*) Datuak 2004ko etxekoen unitateei buruzko inkestatik atera dira.

### Funtsezko instituzioa, aldaketak gorabehera

Familiaren instituzioak azken aldi honetan izan dituen aldaketa handiak nabarmenak dira. Horren ondorioz, askotariko familia mota eta barne-dinamika berriak sortu dira, eta zalantzarik gabe

[7] EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Etxekoen unitateei buruzko inkesta, 2008

“familia idealtzat” hartzeko moduko eredurik ez dago jadanik. Hala ere, **familia funtsezko elementua da oraindik ere** haurren eta nerabeen garapenean eta parte-hartze sozialean, eta **segurtasuna eta konfiantza ematen duen gunetzat** hartzen dute haurrek eta nerabeek.

EAEko haurren eta nerabeen premiak eta eskariak aztertzen dituen azterlan kualitatibo baten arabera[8], gizon batek, emakume batek eta seme-alabek osatzen duten familia edo familia zabala (aurrekoek ez ezik familiako beste kide batzuek ere osatzen dutena) hartzen dute **familia idealtzat** haurrek eta nerabeek. Dena dela, adinean gora egin ahala (bederatzi urtetik aurrera, nagusiki), familia-eredu desberdinak errazago identifikatzen direla ikus daiteke (seme-alabarik gabeko bikoteak, homosexualen bikoteak eta abar).

Haurrek eta nerabeek familia-eredu berriak ikusten dituzte beren ingurune hurbilean. **Banandutako edo dibortziatutako familiak** eta aurreko banantze-prozesuetatik abiatuta sortutako familiak naturaltasunez onartzen dira. 2009. urtean, 18 urtetik beherako adingabeak kargura zituzten 2.088 bikote banandu eta dibortziatu ziren, hau da, banandu edo dibortziatutako bikoteen erdiak, gutxi gorabehera[9].

4. TAULA: SEXU DESBERDINEKO EZKONTIDEEN ARTEKO EZKONTZA DESEGITEAK (BANANTZEAK ETA DIBORTZIOAK), KARGURA DITUZTEN SEME-ALABEN KOPURUAREN ARABERA.

| | EAE | | Espainia | |
|---|---|---|---|---|
| | Banantzeak | Dibortzioak | Banantzeak | Dibortzioak |
| Guztira | 260 | 3.894 | 7.674 | 98.207 |
| Seme-alabekin, guztira | **137** | **1.951** | **4.450** | **52.389** |
| Seme/alaba 1 | 66 | 1.165 | 2.232 | 30.258 |
| 2 seme-alaba | 55 | 689 | 1.835 | 19.257 |
| 3 seme-alaba | 13 | 89 | 329 | 2.511 |
| 4 seme-alaba | 3 | 7 | 44 | 275 |
| 4 seme-alaba baino gehiago | 0 | 1 | 10 | 88 |
| GUZTIRA | **2.088** | | **56.839** | |

Iturria: EIN. Ezkontza-deuseztasunen, banantzeen eta dibortzioen estatistika. 2009. Geuk egindako taula.

**Guraso bakarreko familiek** ere belaunaldi berrien errealitatea osatzen dute. Izan ere, 2008. urtean, euskal familia guztien % 8,3 dira, eta horien % 40k mendeko seme-alabak ditu **(26.246 familia**). Guraso bakarreko familietan bizi diren 3 urtetik beherako haurrak adingabe guztien % 3,3 dira[10].

5. TAULA: EAE-KO GURASO BAKARREKO ETXEKOEN UNITATEAK, ETXEKOEN UNITATE MOTAREN ARABERA. 2008

| Etxekoen unitate motak | Etxekoen unitateak | |
|---|---|---|
| | Datu absolutuak | % |
| **Guztira** | 65.826 | 8,3 |
| Mendeko seme-alabak dituzten ezkontide izandakoak | 24.724 | 3,1 |
| Mendeko seme-alabarik ez duten ezkontide izandakoak | 38.814 | 4,9 |
| Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra | 1.522 | 0,2 |
| Mendeko seme-alabarik ez duen guraso bakarra | 766 | 0,1 |

Iturria: Etxekoen unitateei buruzko Inkesta, 2008.

8 EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010
9 Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN), Ezkontza-deuseztasunen, banantzeen eta dibortzioen estatistika. 2009
10 EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Etxekoen unitateei buruzko inkesta, 2008

Bestalde, homosexualen edo lesbianen bikoteez osatutako familiak eta emakumea gizona baino nabarmen zaharragoa duten familiak dira haurren eta nerabeen burla gehien pairatu behar dituztenak.

6. TAULA: FAMILIEN KONFIGURAZIOA LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAN. 2010

| LEHEN HEZKUNTZA | BIGARREN HEZKUNTZA |
|---|---|
| - Antzeko ezaugarri soziodemografikoak dituzten familiak eratzeko joera.<br>- Irudien edertasuna neurtzen dute antzeko bikoteak sortzeko.<br>- Gizon batek eta emakume batek osatutako ohiko familiak eratzeko joera orokorra 9 urte bete arte.<br>- Familia zabalak landa-eremuetan eta haur txikienen kasuan eratzen dira batez ere.<br>- Bederatzi urte betetzen dituztenetik, familia-tipologia gehiago identifikatzen dituzte. | - Antzeko ezaugarri soziodemografikoak dituzten familiak eratzeko joera.<br>- Irudien edertasuna neurtzen dute antzeko bikoteak sortzeko.<br>- Errazago ikusten dituzte familia-eredu berriak. |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

## Komunikatzeko zailtasunak izanik ere familia-harremanekin pozik dauden haurrak eta nerabeak

Haurrak eta nerabeak, oro har, pozik daude **familiarekiko harremanarekin.** Adibidez, 11-17 urteko adingabeek 8,43ko puntuazioa eman diote familiarekiko harremanari (10etik)[11]. Hala ere, eta lehen hezkuntzako haurrei batez ere, **gurasoekin gehiago egotea gustatuko litzaieke**, baita familia zabaleko beste kide batzuekin ere. Edonola ere, adinean gora egin ahala, familiarekin gehiago egoteko interesa txikiagoa da, eta nerabezaroan, berriz, berdinen taldeak funtsezko garrantzia hartzen du.

7. TAULA: 11-17 URTEKO ADINGABEEN GOGOBETETZEA FAMILIA HARREMANEKIKO. 2006

| | | Batez bestekoa | Desb. Tip. |
|---|---|---|---|
| GUZTIRA | | 8.43 | 1.58 |
| SEXUA | Mutila | 8.52 | 1.46 |
| | Neska | 8.35 | 1.68 |
| ADINA | 11-12 urte | 9.15 | 1.34 |
| | 13-14 urte | 8.55 | 1.51 |
| | 15-16 urte | 7.99 | 1.65 |
| | 17-18 urte | 7.99 | 1.54 |
| BIZILEKUA | Landa-eremua | 8.51 | 1.69 |
| | Hiri-eremua | 8.40 | 1.54 |
| IKASTETXEAREN TITULARTASUNA | Pribatua | 8.52 | 1.55 |
| | Publikoa | 8.34 | 1.61 |
| FAMILIAREN EROSTEKO AHALMENA | Txikia | 7.96 | 2.08 |
| | Ertaina | 8.52 | 1.43 |
| | Handia | 8.54 | 1.45 |
| | Sailkatu gabe | 9.26 | 1.32 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

[11] ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. Op. Cit.

8. TAULA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEK FAMILIAREKIN EMATEN DUTEN DENBORAZ DUTEN PERTZEPZIOA. 2010

| LEHEN HEZKUNTZA | BIGARREN HEZKUNTZA |
|---|---|
| - Pozik daude familiarekin ematen duten denborarekin, baina, txikienek batez ere, denbora gehiago eman nahi lukete beren gurasoekin.<br>- Adinean aurrera egin ahala, gero eta egoera aspergarri gehiago lotzen dituzte gurasoekin ematen duten denborarekin.<br>- Familiarekiko aisia eta astialdia asteburuetara mugatzen da.<br>- Astegunetan gehiago sentitzen dute aita ez dagoela, eta amaren zeregina funtsezkoa izaten da normalean ikastetxetik irten ondoko jardueretan.<br>- Familiarekin ematen duten denboraren kantitatea eta kalitatea murriztearekin batera, afektibitate-premiak sortzen dira, batzuetan irakasleek bete behar dituztenak. | - Pozik daude gurasoekin ematen duten denborarekin, baina ez dute familiarekin denbora gehiago eman nahi.<br>- Irakasleen esanetan, nerabeek denbora asko ematen dute bakarrik etxean.<br>- Gustatzen ez zaizkien jardueren artean, familia-bilerekin zerikusia dutenak nabarmentzen dira.<br>- Berdinen taldeak funtsezko garrantzia hartzen du aisiako eta astialdiko jardueretan. |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

EAEn, etxean familiarekin gutxienez astean behin jolasean aritzen direla dioten 11-17 urtekoen ehunekoa % 36 baino ez da, eta familian gutxienez astean behin solasean aritzen direla dioten adin bereko euskal adingabeak, berriz, % 62 dira. Beraz, adingabe horien herenek maiztasun txikiagoarekin hitz egiten dute familian. Mutilak neskak baino gutxiagotan aritzen dira solasean familian[12].

9. TAULA: 11-17 URTEKO ADINGABEEN %, FAMILIAREKIN JOLASTEKO ETA HITZ EGITEKO MAIZTASUNA KONTUAN HARTUTA ETA SEXUAREN ARABERA. 2006

| | FAMILIAREKIN JOLASTU | | | FAMILIAREKIN HITZ EGIN | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| % | Guztira | Mutilak | Neskak | Guztira | Mutilak | Neskak |
| Egunero | **4.8** | **6.4** | **3.4** | **19.0** | **17.5** | **20.3** |
| Egun gehienetan | **12.2** | **12.2** | **12.2** | **23.6** | **21.1** | **25.9** |
| Astean behin, gutxi gorabehera | **19.60** | **19.6** | **19.7** | **19.4** | **22.3** | **16.6** |
| Astean behin baino gutxiagotan | 28.90 | 26.9 | 30.7 | 22.9 | 21.5 | 24.2 |
| Inoiz ez | 32.10 | 32.1 | 32.0 | 13.4 | 15.1 | 11.9 |
| Ez du erantzun | 2.4 | 2.9 | 2.0 | 1.8 | 2.5 | 1.0 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

10. TAULA: 11-17 URTEKO ADINGABEEN %, FAMILIAN JOLASTEKO ETA HITZ EGITEKO MAIZTASUNA KONTUAN HARTUTA. **Estatuko datuak.** 2006

| % | FAMILIAREKIN JOLASTU Guztira | FAMILIAREKIN HITZ EGIN Guztira |
|---|---|---|
| Egunero | **4.4** | **18.7** |
| Egun gehienetan | **12.3** | **25.9** |
| Astean behin, gutxi gorabehera | **21.2** | **19.5** |
| Astean behin baino gutxiagotan | 27.4 | 20.4 |
| Inoiz ez | 32.5 | 14.3 |
| Ez du erantzun | 2.3 | 1.2 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

12 Ibidem

11. TAULA: 11-17 URTEKO ADINGABEEN %, FAMILIAN JOLASTEKO ETA HITZ EGITEKO MAIZTASUNA KONTUAN HARTUTA ETA BIZILEKUAREN (landa- edo hiri-eremua) ARABERA. 2006

| % | FAMILIAREKIN JOLASTU | | FAMILIAREKIN HITZ EGIN | |
|---|---|---|---|---|
| | Landa-eremua | Hiri-eremua | Landa-eremua | Hiri-eremua |
| Egunero | **3.5** | **5.4** | **20.5** | **18.4** |
| Egun gehienetan | **14.9** | **11.1** | **23.8** | **23.5** |
| Astean behin, gutxi gorabehera | **17.2** | **20.6** | **28.8** | **19.6** |
| Astean behin baino gutxiagotan | 38.8 | 24.9 | 24.6 | 22.2 |
| Inoiz ez | 24.6 | 35.1 | 11.9 | 14.0 |
| Ez du erantzun | 1.0 | 3.0 | 0.3 | 2.3 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

12. TAULA: 11-17 URTEKO ADINGABEEN %, FAMILIAN JOLASTEKO ETA HITZ EGITEKO MAIZTASUNA KONTUAN HARTUTA ETA IKASTETXEAREN TITULARTASUNAREN (publikoa edo pribatua) ARABERA. 2006

| % | FAMILIAREKIN JOLASTU | | FAMILIAREKIN HITZ EGIN | |
|---|---|---|---|---|
| | Pribatua | Publikoa | Pribatua | Publikoa |
| Egunero | **5.5** | **4.2** | **20.5** | **17.3** |
| Egun gehienetan | **13.4** | **10.9** | **22.6** | **24.6** |
| Astean behin, gutxi gorabehera | **17.8** | **21.5** | **20.7** | **17.9** |
| Astean behin baino gutxiagotan | 30.0 | 27.7 | 22.8 | 23.0 |
| Inoiz ez | 30.7 | 33.5 | 11.8 | 15.2 |
| Ez du erantzun | 2.6 | 2.1 | 1.6 | 2.0 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

13. TAULA: 11-17 URTEKO ADINGABEEN %, FAMILIAN JOLASTEKO ETA HITZ EGITEKO MAIZTASUNA KONTUAN HARTUTA ETA FAMILIAREN EROSTEKO AHALMENAREN (txikia, ertaina edo handia) ARABERA. 2006

| % | FAMILIAREKIN JOLASTU | | | FAMILIAREKIN HITZ EGIN | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Txikia | Ertaina | Handia | Txikia | Ertaina | Handia |
| Egunero | **4.4** | **4.1** | **5.9** | **18.9** | **16.4** | **23.0** |
| Egun gehienetan | **17.1** | **11.1** | **11.2** | **21.3** | **25.7** | **22.2** |
| Astean behin, gutxi gorabehera | **12.9** | **22.7** | **19.5** | **19.6** | **21.3** | **16.6** |
| Astean behin baino gutxiagotan | 24.1 | 31.1 | 29.1 | 19.0 | 24.9 | 22.6 |
| Inoiz ez | 38.8 | 28.9 | 33.3 | 19.7 | 10.5 | 14.6 |
| Ez du erantzun | 2.7 | 2.3 | 1.0 | 1.5 | 1.2 | 1.0 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

Zenbait azterlanen[13] arabera, haurrek (lehen hezkuntzakoek batez ere) gai intimoez hitz egin nahi lukete gurasoekin, baina lotsa ematen die hitz egiteak. Gainera, adinean gora egin ahala, **komunikatzeko** zailtasunak handiagoak dira, eta zailtasunik handienak nerabezaroan agertzen dira. Ildo horretan, EAEko 11-17 urteko neska-mutilen % 32k esan du arazoak dituela aitarekin kezka eragiten dien gauzei buruz hitz egiteko; zailtasun hori % 14ra jaisten da amarekin hitz egin behar dutenean. Dirudienez, neskek dituzte zailtasunik handienak aitarekin hitz egiteko.

Edonola ere, familiaren balioespena handia da oraindik, eta instituzio horrek **egokitzeko gaitasun** handia erakutsi duelako gertatzen da hori batez ere. Halaber, beste zenbait faktoreren artean, barne-portaeren malgutzea eta askatasun, barne-demokrazia eta seme-alaben arteko berdintasun handiagoa aipa daitezke.

14. TAULA: 11-17 URTEKO ADINGABEEN ERRAZTASUNA AITAREKIN ETA AMAREKIN KEZKA ERAGITEN DIETEN GAUZEI BURUZ HITZ EGITEKO, SEXUAREN ARABERA. 2006

| % | Aitarekin | | | Amarekin | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Mutilak | Neskak | Guztira | Mutilak | Neskak |

[13] EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. Op. Cit.

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Oso erraza | 24.1 | 30.1 | 18.5 | 43.6 | 44.1 | 43.2 |
| Erraza | 36.2 | 39.2 | 33.5 | 39.8 | 38.9 | 38.8 |
| Zaila | **22.5** | **16.4** | **28.1** | **11.4** | **10.1** | **12.6** |
| Oso zaila | **10.3** | **7.5** | **12.8** | **3.3** | **3.8** | **2.7** |
| Ez dut halakorik, edo ez dut ikusten | 5.1 | 4.7 | 5.5 | 1.5 | 1.7 | 1.3 |
| Ez du erantzun | 1.9 | 2.1 | 1.7 | 1.4 | 1.4 | 1.3 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

15. TAULA: 11-17 URTEKO ADINGABEEN ERRAZTASUNA AITAREKIN ETA AMAREKIN KEZKA ERAGITEN DIETEN GAUZEI BURUZ HITZ EGITEKO. **Estatuko datuak.** 2006

| % | Aitarekin Guztira | Amarekin Guztira |
|---|---|---|
| Oso erraza | 21.8 | 41.7 |
| Erraza | 37.6 | 38.6 |
| Zaila | **24.3** | **13.4** |
| Oso zaila | **10.2** | **3.7** |
| Ez dut halakorik, edo ez dut ikusten | 4.1 | 0.9 |
| Ez du erantzun | 1.9 | 1.8 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

1. MARRAZKIA: FAMILIA BARRUAN KOMUNIKATZEKO ZAILTASUNAK 2010



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

## Familiak modernoagoak dira, baina genero-rol tradizionalak erreproduzitzen jarraitzen dute

Ildo horretan, ohiko familia tradizionalaren eredua poliki-poliki apurtzen ari dela nabari da. Eredu horretan, hierarkia zorrotza da gizonaren eta emakumearen artean, eta gurasoen eta seme-alaben artean. Halaber, gizonentzako eta emakumeentzako rol espezifikoak daude, eta publikotasunaren eta pribatutasunaren arteko dikotomia agertzen da (mundu publikoa gizonaren eremua da, eta emakumeari, aldiz, pribatua dagokio soilik). Hala ere, emakumea erreferentziazko irudia da oraindik etxeko espazioaren antolamenduan, eta **familia-testuinguruak indartu egiten du genero-bereizketa**. Izan ere, emakumeei eta gizonei jarduera desberdinak esleitzen dizkie familia-egituraren barruan, eta horixe da lehen maila sexu-tipifikazioaren prozesuan.

16. TAULA: ETXEKO ZEREGINEN BANAKETA LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEN ARABERA. 2010

| LEHEN HEZKUNTZA | BIGARREN HEZKUNTZA |
|---|---|
| - Naturaltasunez diote dute amak direla, batez ere, etxeko zereginez arduratzen direnak.<br>- Hasiera batean ez dute egoera hori bidegabetzat jotzen: aitek lan egiten dute, eta amek etxeko zereginen ardura hartzen dute, denbora gehiago dutelako edo nahi dutelako. | - Hasiera batean, etxeko zereginak amaren eta aitaren artean zuzen banatzen direla adierazten dute.<br>- Gaiari buruzko ikerketan aurrera egin ahala, desorekak ikusten dituzte zereginen banaketan, eta matxismoan oinarritutako sistemari edo sexuaren araberako lan-bereizketari egozten diote hori. |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

Ildo horretan, Emakundek 2008. urtean egindako *EAEko nerabeak. Hurbilketa ahalduntzetik abiatuta*[14] azterlanak azpimarratzen duenez, **nerabezaroko zaintzaren kudeaketa eta ardura amek hartzen dute beren gain oraindik, eta neskek mutilek baino etxeko zeregin gehiago eta maizago egiten dituzte**.

17. TAULA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEK ETXEKO ZEREGINETAN DUTEN PARTE-HARTZEA. 2010

| LEHEN HEZKUNTZA | BIGARREN HEZKUNTZA |
|---|---|
| - Etxeko zereginak nork egiten dituen galdetuta, erantzun egozentrikoa nagusitu da, eta zeregin askoren ardura hartzen dutela adierazten dute<br>- Parte-hartze sinbolikoa: gurasoei etxeko zereginetan laguntzen diete.<br>- Nesken artean edo banantze- edo dibortzio-prozesuetatik datozenen artean gehiago dira zereginak borondatezkoak direla uste dutenak | - Oso parte-hartze txikia etxeko zereginetan<br>- Etxeko zereginak inposatuak direla uste dute<br>- Zereginen banaketa desberdina da sexuaren arabera<br>- Etorkizuneko familia-ereduari jarraiki, etxeko zereginak zuzen banatuko lirateke |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

14 EMAKUNDE. EAEko nerabeak. Hurbilketa ahalduntzetik abiatuta. 2008

## Familiaren malgutzeak eta demokratizazioak hazteko zailtasunak dakartza

Bestalde, esan daiteke haurrek eta gazteek **botere handiagoa eskuratu dutela** familia-antolamenduaren barruan. Adibidez, familia-antolamenduari lotutako gai askoren inguruko kontsulta egiten zaie (zer jan, zer arropa jantzi, oporretan nora joan eta abar), eta erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzen dute. Ildo horretan, familietan sortutako gatazka batzuk **mugen eta arauen ezarpenari** lotuta daude. Eredu autoritarioetatik urruntzeko asmoarekin, badirudi gurasoek ez dutela orekarik lortzen hurbileko familia-harremanen eta arau eta mugen ezarpenaren artean (autoritate-galtzea).

Gurasoek seme-alabekin ematen duten denbora laburragatik izaten duten erru-sentimendua dela-eta, zenbait kasutan opariak egiten dizkiete edota aginpideak eskuordetzen dituzte (zer egin, zer jan eta abar erabakitzen uzten diete seme-alabei). Horren ondorioz, **jarrera egozentrikoak eta enpatia urrikoak** sortzen dira, arretagune izatera eta nahi dutena egitera ohitzen baitira seme-alabak. Familiek zailtasun handiak dituzte seme-alabekiko konfiantza eta elkarrizketarako guneak sortzeko eta, aldi berean, hartutako erabakiei tinko eusteko.

18. TAULA: GATAZKAK LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEN ARABERA. 2010

| LEHEN HEZKUNTZA | BIGARREN HEZKUNTZA |
|---|---|
| - Amaren eta aitaren autoritatea errespetatzen dute eta ez dute zalantzan jartzen.<br>- Amak presentzia handia du ikastetxetik irtetean egiten dituzten jardueren kontrolean.<br>- Gatazkak gaizki portatzeagatik, gutxiegien kopuruarengatik, anai-arreben arteko tirabirengatik edo gela zikin egoteagatik gertatzen dira. Gurasoek portaera horiek zigortzen dituzte, baina ez dute zorrotz jokatzen, eta haurrek erraz konbentzitzen dituzte zigorra kentzeko.<br>- Gurasoek informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera kontrolatzen dute.<br>- Gurasoek identifikatzen dituzten gatazka batzuk honako hauekin dute zerikusia: mugak eta arauak ezartzearekin eta familia zabaleko beste kide batzuek muturra sartzearekin. | - Familiaren autoritatea ez dago hain barneratuta.<br>- Familia barruko tirabirak maizago gertatzen dira, eta nerabeek autonomia handiagoa lortzeko egiten duten aldarrikapenarekin dute zerikusia.<br>- Teknologia berrien erabilerak gatazkak sorrarazten ditu etxean, gurasoek denbora mugatu nahi dutelako, Internetekin fidatzen ez direlako eta nerabeak ezezagunekin harremanetan jartzea begi onez ikusten ez dutelako. Batzuetan, gurasoak ez dira kezkatzen, gai horretaz ezer ez dakitelako.<br>- Gurasoak alkoholaren eta drogen kontsumoaz kezkatzen hasten dira, eta nerabeek ezezkoak onartzen ez dakitelako kezkatzen dira.<br>- Irakasleen ustetan, adin horretan areagotu egiten dira mugen eta arauen ezarpenari lotutako gatazkak. |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

## Familiak balioen transmititzaile gisa duen garrantzia galtzea

Familien ustez, familia-sisteman gertatutako aldaketen ondorioz (bi gurasoek lan egiten dute, seme-alabekin denbora gutxiago ematen dute, kanpoko laguntza handiagoa jasotzen dute seme-alabak hazteko eta abar), **familiak garrantzia eta eragina galdu du** seme-alaben heziketan, eta beste agente sozializatzaile batzuk betetzen ari dira leku hori. Dakigunez, nerabezaroan berdinen taldeak funtsezko garrantzia hartzen du balioen mapa osatzean. Gainera, Arartekoaren *Adingabekoei balioak transmititzea* txosten bereziak hain ezaguna ez den alderdi bat lantzen du, eta, adierazten duenez, lehen hezkuntzako ikasleentzat irakasleak dira ikasteko eta orientatzeko iturri nagusia, gurasoen gainetik[15].

Txosten berean, gizarte osoak **balioen** arloan gizarte-erantzukizuna sustatzea eta gizarte-sentsibilizazio eta erakundeen lidergo handiagoa bultzatzea gomendatzen da, baina, nolanahi ere, **familiak transmititzaile gisa betetzen duen zeregina** azpimarratzen da. Horretarako,

[15] ARARTEKOA. Adingabekoei balioak transmititzea. Arartekoaren txosten berezia. 2008.

adiskidetzea eta gurasoen prestakuntza erraztu behar dela adierazten da, eta errefortzu positiboa erabiltzea, indarkeria zigor gisa baztertzea eta adingabeen erantzukizuna sustatzea oso garrantzitsua dela azpimarratzen da.

### Gehiegizko babesa, kolektiboaren heldutasunik ezaren hazia

Adierazitako azterlan kualitatiboak agerian jarri duenez, irakasleak eta gurasoak bat datoz haurrei eta nerabeei helarazten ari zaien **eredu protekzionistaren** eta haur eta nerabe horien gaineko **gehiegizko babesaren** inguruan. Izan ere, haurren eta nerabeen premiei berehala erantzun nahi izaten zaie, eta jasan dezaketen sufrimendu mota oro saihestu nahi izaten da. Horren ondorioz, kolektiboaren heldutasunik eza agertzen da.

Egoera horrek eraginda, haurren eta nerabeen **sormena behera egiten ari da** –itxaropenak sortzeko aukerak mugatu egiten baitira–, eta gauza bera gertatzen da haurren eta nerabeen autonomiarekin, gizarte-trebetasunekin, ahaleginaren kulturarekin eta hobetzeko estrategiekin. Inguruneak berehala erantzuten die haurren eta gazteen premiei, eta, horregatik, **frustrazioarekiko tolerantzia txikia** izaten dute. Hori dela-eta, **ez dituzte beren gain hartzen betebeharrak eta erantzukizunak**, eta eskubideen eskakizuna gero eta handiagoa da.

2. MARRAZKIA: GEHIEGIZKO BABESA. ARRAZOIAK ETA ONDORIOAK. 2010

**GIZARTEAK, FAMILIAK, HEZKUNTZA SISTEMAK ETA IRAKASLEEK GEHIEGI BABESTEN DITUZTE HAURRAK ETA NERABEAK**

ARRAZOI BATZUK
- Gurasoek seme-alabekin ematen duten denboraren kantitate eta kalitate txikiagoa
- Sufrimendu mota oro saihestu nahi izatea
- Familiek haurtzaroan eta nerabezaroan bizi diren egoerak puzteko joera
- Familien erru-sentimendua
- Haurrengan eta nerabeengan proiektatzen duten arrakastaren sindromea
- Familien orientaziorik eza bakoitzari dagozkion ikaskuntzekin
- Pazientziarik eza eta nekea

ONDORIOAK HAUR ETA NERABEENGAN
- Gutxieneko araurik eza
- Frustrazioarekiko tolerantziarik eza
- Autonomia txikiagoa
- Ahaleginaren kulturarik eza
- Gizarte-trebetasun eta hobetzeko estrategia urriak
- Sormenaren beherakada itxaropenak sortzeko aukerak txikiagoak direlako, premiak eta eskariak berehala betetzen baitira

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

# Osasuna eta sexualitatea

## Errealitate berriak kontuan hartuko dituen osasunaren arreta integral baterantz

Haurren osasun-arretak aurrera egin du azken hamarkadetan. Pediatra bakoitzeko adingabeen ratioa murriztu egin da azken urteotan. 2008. urtean, pediatra bakoitzeko 0-13 urteko adingabeen kopurua 805 da (834 2006. urtean)[16]. EAEko haurren heriotza-tasa Europakoa eta Espainiakoa baino txikiagoa da. Izan ere, EAEn bizirik jaiotako 1.000 haurreko urte batetik beherako haurren 2,91 heriotza daude, eta Espainian eta Europan, berriz, tasak 3,31 eta 4,7 dira, hurrenez hurren[17].

19. TAULA: HAURREN HERIOTZA TASAREN BILAKAERA (URTE 1ETIK BEHERAKOEN HERIOTZAK BIZIRIK JAIOTAKO 1.000 HAURREKO). EAE. 1975-2008

| ‰ | GUZTIRA | GIZONEZKOAK | EMAKUMEZKOAK |
|---|---|---|---|
| 2008 | 2.91 | - | - |
| 2007 | 4,27 | 4,42 | 4,11 |
| 2006 | 3,3 | 2,81 | 3,82 |
| 2005 | 2,89 | 3,56 | 2,19 |
| 2004 | 3,68 | 3,47 | 3,9 |
| 2003 | 3,22 | 3,3 | 3,13 |
| 2002 | 3,36 | 3,58 | 3,14 |
| 2001 | 3,4 | 4,04 | 2,71 |
| 2000 | 3,06 | 2,57 | 3,59 |
| 1995 | 5,67 | 5,42 | 5,94 |
| 1990 | 8,26 | 9,39 | 7,09 |
| 1985 | 9,97 | 10,22 | 9,7 |
| 1980 | 14,68 | 16,44 | 12,75 |
| 1975 | 18,56 | 20,62 | 16,34 |

*Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN). Biztanleriaren mugimendu naturala.*

Arreta pediatrikoa areagotu egin bada ere, gaur egungo erronken artean **osasun-laguntza errealitate berrietara egokitzeko beharra** adierazi beharra dago. Adibidez, atzerriko biztanleen kopuruak gora egin duela eta atzerritar horiek, beste zenbait ezaugarriren artean, hizkuntza-zailtasunak dituztela azpimarratu behar dugu. Ildo horretan, eta arreta diagnostikoa kasuen jarraipenarekin osatzeko, **arreta integralago baterako beharrezkoa izango litzateke koordinazio soziosanitarioa hobetzea eta esku-hartzearen ikuspegia aldatzea**. Horri lotuta, arretari denboran jarraipena emateko ideia gaineratu, eta prebentzioa sustatuko litzateke.

## Osasun mentalaren arreta, osasun-sistemaren erronka

**Osasun mentalaren arreta ere integraltasunera bideratutako osasun-sistemaren erronketako bat da.** 2010ean, gutxienez 9.500 adingabe artatu ziren Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako osasun-zerbitzuetan (% 65 mutilak ziren), hots, zerbitzu horretan artatutako pertsona

[16] EUSKO JAURLARITZA. Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Saila eta Eustat. Ospitalez kanpoko Estatistika Publikoa. 2008
[17] EIN. Oinarrizko Adierazle Demografikoak. 2008

guztien % 11,3 eta Euskadiko adingabeen % 2,79[18]. Zenbait adituk[19] ohartarazi dutenez, jokabidearen eta afektibitatearen alderdia neurri handiagoan landu eta gehiegizko medikalizazioa saihestu behar da (esku-hartze terapeutikoa vs. farmakologikoa). Era berean, beharrezkotzat hartzen dute baliabide espezializatuak gehitzea eta baliabide horien eta normalizatuen arteko aldea murriztea.

Gainera, beharrezkotzat hartzen da **osasun emozionalaren lanean sakontzea** eta emozioak eta jokabideak lantzea. Era horretan, haurren eta nerabeen premia emozionalei erantzuteko ahaleginean aurrera egitea eta helduen premietan neurri handiegian oinarritutako diagnostikoak saihestea bilatuko litzateke. Alderdi emozionalean hezteko, gaur egun familiek behar den neurrian lortu ezin dituzten laguntzak behar dira. Helburu horretara bideratuta dauden eta pertsonen arteko gatazkak gizartean hartzen ari diren garrantziarekin bat datozen baliabide publikoak falta direla ikusten da argi eta garbi.

### Jarduera sedentarioen areagotzea

2006. urteko *Osasun Inkesta Nazionalean* bildutako datuen arabera, **1-15 urteko euskal biztanleen % 11 inguruk ez du inolako ariketa fisikorik egiten astialdian**, eta errealitate hori apur bat nabarmenagoa da nesken kasuan (nesken % 12,5 eta mutilen % 10,9). Edonola ere, datu horiek Estatukoak baino nabarmen txikiagoak dira (Estatuan, kolektibo horren ia % 20k ez du ariketa fisikorik egiten).

Duela gutxi egindako zenbait azterlanek[20] erakutsi dutenez, adingabeek egiten dituzten aisia-jarduueretako eta astialdi-jarduueretako asko **jarduera sedentarioak** dira (kontsola, bideojokoak, mahai-jokoak, telebista ikustea, gitarra jotzea eta abar), batez ere hiriguneetan eta nerabezaroan, hots, jarduera fisikoen beherakada esanguratsua denean.

### Eskola-jantokiek elikadura osasungarria bermatzen dute, baina horien hezkuntza-zeregina oso mugatuta dago

Elikadura-ohiturei dagokienez, oro har **osasungarriak direla dirudi,** lehen hezkuntzan batez ere, eta horretan eragina du eskola-jantokian bazkaltzeak. Izan ere, jantoki horietan janaria askotarikoa da, eta jateko betebeharra handiagoa. Zehazki, 2008/2009 ikasturtean, **EAEko lehen hezkuntzako ikasleen % 65ek erabili zituen ikastetxeko jantoki-zerbitzuak.** Dena dela, kontuan hartu behar da asteburuetan adingabeek aukera handiagoak izaten dituztela gustuko dituzten gauzak jateko, eta askotan janari hori ez dela osasungarria izaten.

TABLA 20: LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN ARTEAN IKASTETXEKO JANTOKI ZERBITZUA ERABILTZEN DUTENAK (%). 2008/2009 IKASTURTEA

| EAE | EAEko ikastetxe pribatuak | Espainia |
|---|---|---|
| 65.00 | 66.20 | 41.10 |

Iturria: Espainiako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Ministerioa. Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistema 2008/2009 ikasturtea

[18] OSAKIDETZA. Esanbidez eskatuta.

[19] HAUR ETA NERABEEN DEFENTSA BULEGOA. Haur eta nerabeen egoerari buruzko azterlana, haien eskubideen eta bizi-kalitatearen ikuspegitik. 2009.

[20] EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

2006ko *Osasun Inkesta Nazionalean* bildutako datuen arabera, **Euskadin obesitatea duten adingabeak % 5,1 dira,** hau da, beste autonomia-erkidegoetan baino gutxiago (obesitate-tasa % 9ra iristen da Estatuan).

Bestalde, hezkuntza-eremuan, **jateko garaian jokamoldeak galtzen ari direla** aipatzen da. Eskola-jantoki askoren ezaugarriek (gehiegizko zarata, araurik eza, adingabe guztiak behar bezala artatzeko zailtasuna eta abar) eta familiek jantokiari garrantzirik ez emateak beharbada eragina dute jantokiak hezkuntza-esparru gisa betetzen duen zereginaren murrizketan. Horrela, beraz, zerbitzu hori bultzatu eta berriz bideratu beharko litzateke.

3. MARRAZKIA: IKASLEEK ELIKADURA OHITUREI BURUZ DUTEN IRITZIA. 2010

**1. HEZKUNTZA**

- Modu osasungarrian jaten dute, normalean eskola-jantokian jaten dutelako
- Nahiago lukete "janari lasterra", makarroiak edo opilak jan. Askaria da gehien gustatzen zaien otordua
- Ondo jatea ona da ez gizentzeko (nesken kasuan batez ere) eta etorkizunean osasun-arazorik ez izateko
- Etxean aitak eta amak konbentzitu ditzakete janaria aldatzeko gustatzen ez zaienean.

**2. HEZKUNTZA**

- Etxean jan nahi dutena aukeratzeko autonomia handiagoa.
- Jatordua familia-gatazkako unea izaten da.
- Hautatzeko aukera dutenean, ez dute modu osasungarrian jaten
- Ohikoa da dieta egitea ez gizentzeko edo argaltzeko, batez ere nesken kasuan.

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

### Irudi fisikoak gizarte-arrakasta baldintzatzen du, nesken kasuan bereziki

**Irudi fisikoak garrantzi handia du haurtzaroan eta nerabezaroan**, taldean integratzeko eta pertsonen arteko harremanak ezartzeko aukerak baldintzatzen ditu, eta estatus-marka edo gizarte-arrakastaren zeinu izaten da.

Nerabezaroan, **neskek zailtasun handiagoak izaten dituzte beren buruarekin gustura sentitzeko,** beren irudiari eta autokontzeptuari lotutako arazo gehiago identifikatzen dituzte, eta mutilek baino dieta gehiago egiten dituzte ez gizentzeko edo argaltzeko eta ezarrita dauden edertasun-kanonetara egokitzeko. *Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)-Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlanak* dioenez, 2006. urtean Euskadiko 11-17 urteko adingabeen % 16,5ek itxura fisikoari lotutako frustrazioa sentitzen zuen, eta ehuneko hori % 20ra iristen zen nesken kasuan. Gainera, azterlan horretan Rosemberg-en autoestimu-eskalaren bidez egiaztatu zenez, **nesken autoestimu-maila mutilena baino txikiagoa zen**[21]**.**

[21] ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

**Mutilen** kasuan, oro har beren gorputzekin gustura sentitzen direla badiote ere, bete beharreko **edertasun-eredu eta –kanonak** ikusten dituzte. Halaber, beraien gain ere maila horretan presioa badagoela adierazi dute (argal egotea, indartsua eta gihartsua izatea eta abar).

21. TAULA: FRUSTRAZIOA SENTITZEAREN IDEIAREKIKO ADOSTASUN EDO DESADOSTASUN MAILA, SEXUAREN ARABERA. 2006

| | Guztira | Mutilak | Neskak |
|---|---|---|---|
| Oso desados | 25.9 | 34.7 | 17.5 |
| Desados | 26.9 | 25.8 | 28.0 |
| Ez ados, ez desados | 26.5 | 22.1 | 30.6 |
| Ados | **12.3** | **8.7** | **15.7** |
| Oso ados | **4.2** | **3.3** | **5.0** |
| Ez du erantzun | 4.2 | 5.4 | 3.1 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

22. TAULA: FRUSTRAZIOA SENTITZEAREN IDEIAREKIKO ADOSTASUN EDO DESADOSTASUN MAILA, ADINAREN ARABERA. 2006

| | 13-14 | 15-16 | 17-18 |
|---|---|---|---|
| Oso desados | 26.2 | 28.1 | 22.8 |
| Desados | 24.9 | 24.6 | 23.6 |
| Ez ados, ez desados | 25.1 | 26.4 | 28.7 |
| Ados | **12.0** | **14.6** | **10.1** |
| Oso ados | **4.4** | **2.9** | **5.4** |
| Ez du erantzun | 7.4 | 3.5 | 0.4 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

23. TAULA: FRUSTRAZIOA SENTITZEAREN IDEIAREKIKO ADOSTASUN EDO DESADOSTASUN MAILA, BIZILEKUAREN (landa- edo hiri-eremua) ARABERA. 2006

| | Landa-eremua | Hiri-eremua |
|---|---|---|
| Oso desados | 26.1 | 25.8 |
| Desados | 27.8 | 26.6 |
| Ez ados, ez desados | 24.6 | 27.3 |
| Ados | **14.2** | **11.5** |
| Oso ados | **5.0** | **3.8** |
| Ez du erantzun | 2.2 | 5.0 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

24. TAULA: FRUSTRAZIOA SENTITZEAREN IDEIAREKIKO ADOSTASUN EDO DESADOSTASUN MAILA, IKASTETXEAREN TITULARTASUNAREN (publikoa edo pribatua) ARABERA. 2006

| | Pribatua | Publikoa |
|---|---|---|
| Oso desados | 26.9 | 24.8 |
| Desados | 26.3 | 27.6 |
| Ez ados, ez desados | 27.2 | 25.8 |
| Ados | **12.8** | **11.8** |
| Oso ados | **3.8** | **4.6** |
| Ez du erantzun | 2.9 | 5.5 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

25. TAULA: FRUSTRAZIOA SENTITZEAREN IDEIAREKIKO ADOSTASUN EDO DESADOSTASUN MAILA, FAMILIAREN EROSTEKO AHALMENAREN (txikia, ertaina edo handia) ARABERA. 2006

| | Txikia | Ertaina | Handia |
|---|---|---|---|
| Oso desados | 24.6 | 24.6 | 28.3 |
| Desados | 25.1 | 28.8 | 25.5 |
| Ez ados, ez desados | 27.1 | 26.2 | 27.3 |
| Ados | **12.9** | **12.0** | **12.6** |
| Oso ados | **5.4** | **3.8** | **4.1** |
| Ez du erantzun | 5.0 | 4.6 | 2.2 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

## Alkoholaren kontsumoa zabalduta dago nerabezaroan, eta normaltzat hartzen da

Alkoholaren eta legez kanpoko substantzien kontsumoa nerabezaroan zabalduta dagoen errealitatea da, eta, oro har, horiek lortzea erraza dela dirudi. Alkohola lortzeko errazena den eta nerabeek gehien kontsumitzen duten substantzia da. Gainera, kalterik gutxien eragiten duena da nerabeentzat.

Nerabezaroan, **alkoholaren kontsumoa normaltzat hartzen da** aisiaguneekin, jaiekin edo une bereziekin lotzen denean, eta **kontsumitzeko arrazoiak desinhibizioarekin eta deskonexioarekin lotuta daude** nagusiki. Nerabezaroan berdinen taldeak kontsumoetara hurbiltzeko funtsezko zeregina betetzen badu ere, ez da ahaztu behar familiek ere zeregin garrantzitsua betetzen dutela. Ildo horretan, Arartekoaren txosten batek agerian uzten duenez, **familia-harremanik onenak dituztela uste duten nerabeak dira drogak** (legezkoak eta legez kanpokoak) **gutxien erabiltzen dituztenak**[22].

Tabakoaren eta legez kanpoko drogen kontsumoak dakarren arriskuaren pertzepzioa alkoholaren kontsumoak dakarrenaren pertzepzioa baino handiagoa da. *Euskadi eta drogak, 2008*[23] txostenaren arabera, **alkoholaren kontsumoa larria edo oso larria dela** uste duten 15-19 urteko gazteak **% 50 baino ez dira**, ehuneko horrek aurreko urteekin alderatuta zertxobait gora egin badu ere.

Tabakoari dagokionez, **10etik 6k erretzea larria edo oso larria dela uste dute, eta kanabisa kontsumitzea larria edo oso larria dela uste dutenen ehunekoa % 71ra iristen da.** Kanabisaren larritasunaren pertzepzioak gora egin du azken urteotan, eta badirudi nerabeak kanabisaren arriskuez jabetuago daudela. Hala ere, azpimarratu beharra dago larritasunaren pertzepzioa ez dela handiagoa adinean gora egin ahala, alderantziz baizik.

26. TAULA: HAINBAT SUBSTANTZIAREN KONTSUMOA LARRIA EDO OSO LARRIA DELA USTE DUTENEN EHUNEKOA, ADINAREN ARABERA. 2008

| | 15-19 | 20-24 | 25-29 | 30-34 | 35-44 | 45-54 | 55-64 | 65-74 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Alkohola | 50.1 | 523 | 53.3 | 56.9 | 64.3 | 68.8 | 72.3 | 79.8 |
| Tabakoa | 61.5 | 57.0 | 59.9 | 65.8 | 68.3 | 65.0 | 71.9 | 71.8 |
| Kanabisa | 71.2 | 53.1 | 69.2 | 69.6 | 69.4 | 71.6 | 76.2 | 80.6 |
| Legez kanpoko beste droga batzuk | 75.0 | 57.1 | 77.0 | 78.7 | 83.0 | 80.1 | 81.3 | 86.6 |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadi eta drogak, 2008

[22] ARARTEKOA. Adingabekoei balioak transmititzea. Eusko Legebiltzarrerako txosten berezia. 2008
[23] EUSKO JAURLARITZA. Droga Gaietako Zuzendaritza. Euskadi eta drogak, 2008

Tabakoa ere garrantzitsua da nerabezaroan. Azpimarratu beharra dago, nolanahi ere, **egunero erretzen duten nesken ehunekoa mutilena baino handiagoa dela**. Izan ere, 11-17 urteko nesken % 12,3k dio egunero erretzen duela, eta adin bereko mutilen kasuan, berriz, ehuneko hori % 6,4 baino ez da. Kasu horretan ere, kontsumoa handiagoa da adinean gora egin ahala (**egunero erretzen duten 17-18 urteko gazteak % 23,1 dira**).

27. TAULA: TABAKOAREN KONTSUMOAREN MAIZTASUNA, SEXUAREN ARABERA. 2006

| | Guztira | Mutilak | Neskak |
|---|---|---|---|
| Egunero | **9.4** | **6.4** | **12.3** |
| Astean behin gutxienez, baina egunero ez | 3.1 | 2.8 | 3.4 |
| Astean behin baino gutxiagotan | 4.0 | 3.9 | 4.0 |
| Ez du erretzen | 81.6 | 84.9 | 78.6 |
| Ez du erantzun | 1.8 | 2.0 | 1.7 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

28. TAULA: TABAKOAREN KONTSUMOAREN MAIZTASUNA, ADINAREN ARABERA. 2006

| | 11-12 | 13-14 | 15-16 | 17-18 |
|---|---|---|---|---|
| Egunero | **0.0** | **4.4** | **12.9** | **23.1** |
| Astean behin gutxienez, baina egunero ez | 0.0 | 1.6 | 4.2 | 7.4 |
| Astean behin baino gutxiagotan | 0.5 | 3.0 | 6.2 | 6.6 |
| Ez du erretzen | 98.0 | 89.3 | 75.3 | 60.0 |
| Ez du erantzun | 1.4 | 1.8 | 1.4 | 2.9 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

29. TAULA: TABAKOAREN KONTSUMOAREN MAIZTASUNA, BIZILEKUAREN (landa- edo hiri-eremua) ARABERA. 2006

| | Landa-eremua | Hiri-eremua |
|---|---|---|
| Egunero | **6.3** | **10.7** |
| Astean behin gutxienez, baina egunero ez | 3.6 | 2.9 |
| Astean behin baino gutxiagotan | 3.4 | 4.2 |
| Ez du erretzen | 85.2 | 80.2 |
| Ez du erantzun | 1.5 | 2.0 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

30. TAULA: TABAKOAREN KONTSUMOAREN MAIZTASUNA, IKASTETXEAREN TITULARTASUNAREN (publikoa edo pribatua) ARABERA. 2006

| | Pribatua | Publikoa |
|---|---|---|
| Egunero | **9.2** | **9.7** |
| Astean behin gutxienez, baina egunero ez | 1.8 | 4.4 |
| Astean behin baino gutxiagotan | 3.1 | 4.9 |
| Ez du erretzen | 84.0 | 79.2 |
| Ez du erantzun | 1.8 | 1.8 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

31. TAULA: TABAKOAREN KONTSUMOAREN MAIZTASUNA, FAMILIAREN EROSTEKO AHALMENAREN (txikia, ertaina edo handia) ARABERA. 2006

| | Txikia | Ertaina | Handia |
|---|---|---|---|
| Egunero | **8.9** | **8.8** | **6.5** |
| Astean behin gutxienez, baina egunero ez | 3.0 | 2.4 | 12.7 |
| Astean behin baino gutxiagotan | 3.6 | 3.9 | 5.8 |
| Ez du erretzen | 83.5 | 83.2 | 68.8 |
| Ez du erantzun | 0.9 | 1.7 | 6.2 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

Legez kanpoko drogak (kokaina, estasia, LSDa eta abar) dira gehien asaldatzen dutenak eta gazteentzat arriskutsuenak direnak. Izan ere, **15-19 urteko gazteen % 75ek uste du legez kanpoko drogen kontsumoa larria edo oso larria dela**, eta pertzepzio horrek azken urteotan berdin jarraitu duela dirudi.

## Alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adina 13 urtekoa da, eta lau nerabetik bat –gutxi gorabehera– arriskuaren barruko edalea da asteburuetan

Euskadiko 13-17 urteko gazteen artean, alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adina 13 urtekoa da. Zehazki, **Euskadiko 11-17 urteko adingabeen % 20k astero kontsumitzen du alkohola, eta ehunekoak gora egiten du adinean gora egin ahala (17-18 urtekoen % 52k kontsumitzen du alkohola astero).** Sexuaren araberako aldeak nabariak dira adinean gora egin ahala. Izan ere, 17-18 urteko gazteen artean, mutilek neskek baino neurri handiagoan kontsumitzen dute (mutilen % 57k eta nesken % 48k)[24].

32. TAULA: ALKOHOLAREN KONTSUMOAREN MAIZTASUNA, SEXUAREN ARABERA. 2006

| | Guztira | Mutilak | Neskak |
|---|---|---|---|
| Egunero | 1.5 | 1.2 | 1.8 |
| Astero | **19.8** | **20.4** | **19.3** |
| Hilabetero | 13.3 | 13.2 | 13.4 |
| Gutxitan | 21.0 | 21.3 | 20.6 |
| Inoiz ez | 44.3 | 43.8 | 44.8 |
| Ez du erantzun | 0.0 | 0.0 | 0.0 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

33. TAULA: ALKOHOLAREN KONTSUMOAREN MAIZTASUNA, ADINAREN ARABERA. 2006

| | 11-12 | 13-14 | 15-16 | 17-18 |
|---|---|---|---|---|
| Egunero | 1.2 | 0.6 | 2.0 | 2.8 |
| Astero | **0.0** | **7.5** | **25.4** | **52.2** |
| Hilabetero | 1.1 | 6.4 | 26.8 | 20.7 |
| Gutxitan | 6.0 | 30.0 | 27.2 | 17.1 |
| Inoiz ez | 91.7 | 55.6 | 18.6 | 7.2 |
| Ez du erantzun | 0.0 | 0.0 | 0.0 | 0.0 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

[24] ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

34. TAULA: ALKOHOLAREN KONTSUMOAREN MAIZTASUNA, BIZILEKUAREN (landa- edo hiri-eremua) ARABERA. 2006

| | Landa-eremua | Hiri-eremua |
|---|---|---|
| Egunero | 0.9 | 1.8 |
| Astero | **17.3** | **20.9** |
| Hilabetero | 16.4 | 12.1 |
| Gutxitan | 23.1 | 20.1 |
| Inoiz ez | 42.3 | 45.1 |
| Ez du erantzun | 0.0 | 0.0 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

35. TAULA: ALKOHOLAREN KONTSUMOAREN MAIZTASUNA, IKASTETXEAREN TITULARTASUNAREN (publikoa edo pribatua) ARABERA. 2006

| | Publikoa | Pribatua |
|---|---|---|
| Egunero | 1.7 | 1.4 |
| Astero | **17.8** | **22.1** |
| Hilabetero | 12.7 | 13.9 |
| Gutxitan | 20.3 | 21.7 |
| Inoiz ez | 47.5 | 40.9 |
| Ez du erantzun | 0.0 | 0.0 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

36. TAULA: ALKOHOLAREN KONTSUMOAREN MAIZTASUNA, FAMILIAREN EROSTEKO AHALMENAREN (txikia, ertaina edo handia) ARABERA. 2006

| | Txikia | Ertaina | Handia |
|---|---|---|---|
| Egunero | 1.2 | 1.2 | 2.2 |
| Astero | **21.9** | **18.9** | **20.1** |
| Hilabetero | 10.3 | 13.3 | 14.9 |
| Gutxitan | 25.0 | 19.3 | 21.4 |
| Inoiz ez | 41.6 | 47.3 | 41.4 |
| Ez du erantzun | 0.0 | 0.0 | 0.0 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

37. TAULA: ALKOHOLAREN KONTSUMOAREN MAIZTASUNA EAE-N ETA ESPAINIAN. 2006

| | EAE | ESPAINIA |
|---|---|---|
| Egunero | 1.5 | 1.3 |
| Astero | **19.8** | **16.5** |
| Hilabetero | 13.3 | 12.3 |
| Gutxitan | 21.0 | 23.0 |
| Inoiz ez | 44.3 | 46.9 |
| Ez du erantzun | 0.0 | 0.0 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

**Gainera, Euskadiko 15-19 urteko biztanleen % 26k gehiegi edo arriskuaren barruan edaten du asteburuetan**, eta, sexua kontuan hartuta, arriskuaren barruko edaleen artean mutilak neskak baino gehiago dira (mutilen % 30,5 eta nesken % 21,6)[25].

38. TAULA: GEHIEGI EDO ARRISKUAREN BARRUAN EDATEN DUTEN BIZTANLEAK, ADINAREN ARABERA. 2008

| | 15-19 | 20-24 | 25-29 | 30-34 | 35-44 | 45-54 | 55-64 | 65-74 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gizonezkoak | 30.5 | 38.3 | 43.7 | 25.7 | 17.2 | 15.8 | 10.0 | 5.9 |
| Emakumeak | 21.6 | 21.8 | 11.5 | 9.7 | 3.5 | 7.6 | 1.0 | 1.0 |
| Guztira | 26.2 | 30.3 | 29.0 | 17.6 | 10.2 | 11.7 | 5.6 | 3.3 |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadi eta drogak, 2008

## Kanabisaren kontsumoa zabaldu egin da azken urteotan

Kanabisaren kontsumoa zabaldu egin da azken urteotan. **15-19 urteko gazteen ia erdiek kontsumitu dute kanabisa noizbait, eta % 20 inguruk kontsumitzen du gaur egun[26]**.

39. TAULA: KANABISAREN KONTSUMO ESPERIMENTALA, ADINAREN ARABERA. 2008

| | 15-19 | 20-24 | 25-29 | 30-34 | 35-44 | 45-54 | 55-64 | 65-74 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Guztira | 43.8 | 54.6 | 59.1 | 55.9 | 41.5 | 32.3 | 7.8 | 2.9 |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadi eta drogak, 2008

40. TAULA: KANABISAREN EGUNGO KONTSUMOA, ADINAREN ARABERA. 2008

| | 15-19 | 20-24 | 25-29 | 30-34 | 35-44 | 45-54 | 55-64 | 65-74 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Guztira | 19.8 | 29.7 | 21.5 | 12.4 | 6.6 | 4.0 | 0.3 | 0.3 |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadi eta drogak, 2008

Bestalde, kokaina kontsumitu duten (hau da, kontsultaren aurreko 30 egunetan kokaina kontsumitu duten) 15-19 urteko gazteak % 0,70 dira, baina ehuneko hori % 8,70era igotzen da substantzia hori noizbait kontsumitu dutenak kontuan hartzen baditugu. Estasiaren egungo kontsumoa (hots, kontsultaren aurreko 30 egunetan) kokainarenaren bikoitza da, kontsumo esperimentala (bizitzan noizbait) txikiagoa bada ere (% 3,3)[27].

## Lehen sexu-harreman osoa izateko batez besteko adina 15 urtekoa da, baina sexua tabua da oraindik familietan

**EAEko 14-17 urteko gazteen % 30,20k sexu-harreman osoak izan ditu**, eta ehuneko hori handiagoa da nesken artean (nesken % 32 eta mutilen % 27). Nolanahi ere, Estatuko ehunekoaren antzekoa da (% 32). Lehen sexu-harreman osoa izateko batez besteko adina 15 urtekoa da[28].

41. TAULA: SEXU HARREMAN OSOAK IZAN DITUZTEN 15-18 URTEKO GAZTEEN PROPORTZIOA, SEXUAREN ARABERA. 2006

| Guztira | Mutilak | Neskak |
|---|---|---|
| 30.2 | 27.5 | 32.6 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

25 EUSKO JAURLARITZA. Droga Gaietako Zuzendaritza. Euskadi eta drogak, 2008
26 Kasu horretan, kontsultaren aurreko 30 egunetan cannabisa kontsumitu izana hartzen da kontsumotzat.
27 EUSKO JAURLARITZA. Droga Gaietako Zuzendaritza. Euskadi eta drogak, 2008
28 ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

42. TAULA: SEXU HARREMAN OSOAK IZAN DITUZTEN 15-18 URTEKO GAZTEEN PROPORTZIOA, ADINAREN ARABERA. 2006

| 15-16 | 17-18 |
|---|---|
| 21.4 | 40.6 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

43. TAULA: SEXU HARREMAN OSOAK IZAN DITUZTEN 15-18 URTEKO GAZTEEN PROPORTZIOA, BIZILEKUAREN (landa- edo hiri-eremua) ARABERA. 2006

| Landa-eremua | Hiri-eremua |
|---|---|
| 25.4 | 32.1 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

44. TAULA: SEXU HARREMAN OSOAK IZAN DITUZTEN 15-18 URTEKO GAZTEEN PROPORTZIOA, IKASTETXEAREN TITULARTASUNAREN (publikoa edo pribatua) ARABERA. 2006

| Pribatua | Publikoa |
|---|---|
| 28.5 | 31.7 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

45. TAULA: SEXU HARREMAN OSOAK IZAN DITUZTEN 15-18 URTEKO GAZTEEN PROPORTZIOA, FAMILIAREN EROSTEKO AHALMENAREN (txikia, ertaina edo handia) ARABERA. 2006

| Txikia | Ertaina | Handia |
|---|---|---|
| 46.2 | 27.8 | 25.8 |

Iturria: ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

Haurren eta nerabeen premiei eta eskariei buruzko azterlan kualitatibo batean[29] aipatzen denez, oro har zailtasun handiak daude sexu-harremanei buruz hitz egiteko, eta txikixeagoak bikote-harremanei eta afektibitate-harremanei (familia barruan bereziki) buruz hitz egiteko. Dirudienez, sexua tabua da oraindik, haur eta nerabeek naturaltasunez hitz egiteko nekez gaindi dezaketen oztopoa. Halaber, **gai korapilatsua da gurasoentzat; izan ere, sexualitatearen gaiari ez diote zuzenean heltzen, gaur egun familia-harremanak hurbilagoak badira ere**.

Hezkuntza-eremutik adierazten denez, **familiek hezkuntza afektibo-sexuala eskolaren esku uzteko joera izaten dute**, eta afektibitate- eta sexu-harremanei lotutako hezkuntzak **gaur egungoaz bestelako ikuspegi bati heldu beharko lioke. Ikuspegi hori jarrera arduratsuetan eta enpatian** (beste pertsonen eta norberaren egoera eta premiak zein diren jakiteko) oinarrituta egon beharko luke.

---

[29] EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

## Metodo antikontzeptiboak erabiltzen dira, baina nahi gabeko haurduntzak gertatzen dira oraindik nerabeengan

Oro har, nerabeek **ezagutzen dituzte metodo antikontzeptiboak** (**preserbatiboa** nagusiki), baina zenbait azterlanek[30] diotenez, ohikoena da horren erabilera nahi gabeko haurduntza bat saihesteko metodo batekin erlazionatzea eta ez sexu-transmisioko gaixotasunen aurkako babesarekin, gai hori ez baitute hainbeste kontuan hartzen. **Dirkurtso-mailan, neskek jarrera arduratsuagoak hartu ohi dituzte, eta, dirudienez, informazio handiagoa dute** dauden metodoei buruz.

**Sexu-harremanak izan dituzten EAEko gazteen % 92k metodo antikontzeptibo segururen bat erabili dute** (preserbatiboa edota pilula), eta ehuneko hori Estatuko batez bestekoa baino handiagoa da (% 88,9 Estatuan)[31]. Hala ere, ez da ahaztu behar haurdun geratu diren edo norbait haurdun utzi duten EAEko 14-17 urteko gazteak % 2,4 direla.

Nerabeen haurduntzek zein haurdunaldiaren borondatezko etendurek erakusten dutenez, gazteak jasotzen ari diren sexu-hezkuntzari buruzko gogoeta egin beharra dago. Kezkagarria da 2008. urtean haurdunaldiaren **borondatezko 320 etendura[32]** gertatu izana nerabeen (19 urte inguruko nesken) kasuan, hau da, urte horretako etendura guztien % 10. Aurreko urteko datuak kontuan hartuta etenduren kopuruak zertxobait behera egin duela ikus badaiteke ere, 2005. eta 2006. urteekin alderatuta abortuen kopuruak gora egin duela esan beharra dago.

Datuek, halaber, EAEn[33] inguruko beste lurralde-eremu batzuetan baino haurdunaldiaren borondatezko etendura gutxiago daudela erakusten dute. Izan ere, EAEko 20 urtetik beherako 1.000 emakumeko borondatezko 2 etendura gertatu dira, eta Espainian ehuneko hori ‰ 3ra iristen da.

---

30 EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

31 ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. 2006

32 OSASUN ETA GIZARTE POLITIKARAKO MINISTERIOA ETA ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALA (EIN). Osasun Inkesta Nazionala. 2008

33 OSASUN ETA GIZARTE POLITIKARAKO MINISTERIOA ETA ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALA (EIN). Osasun Inkesta Nazionala. 2006

## Eskola-ingurunea

### Tradizionalki familiek beren gain hartzen zituzten eginkizunak hezkuntza-sistemaren esku

**Gizarte-premiak asko aldatu dira azken aldian.** Pertsonak, familiak eta egoerak aurreko garaietan baino askotarikoagoak dira, eta aldaketa horren ondorioz, askotariko pertsonak, lan egiteko modu eta erritmo desberdinak eta abar sortu dira. Egoera horrek ondorioak izan ditu hezkuntza-sisteman eta, zehazki, gurasoek eta gizarteak eskolari eta irakasleei egiten dizkieten eskakizunei dagokienez.

*EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa*[34] deituriko azterlanaren arabera, irakasleek uste dute **eskolaren esku utzi dela hezkuntza,** lehen familiaren ardura ziren **zaintza eta arretaren oinarrizko zenbait arlotan** (haurren kasuan nagusiki); horregatik, eskola **zerbitzuen (zaintza, elikadura eta abar) emaile orokor bihurtzen ari da, eta irakasleek haurren eta nerabeen afektibitate-premiak bete behar dituzte,** familiek beren seme-alabekin igarotzen duten denboraren kantitatea eta kalitatea jaitsi egin delako batez ere. **Gurasoen ustez, ikastetxea leku segurua da beren seme-alabentzat,** baina, oro har, ikastetxearekin pozik dauden arren, ikastetxearen ordutegiak zabaltzeko eskatzen dute eta opor gehiegi dituztela esaten dute; gai horiek hertsiki lotuta daude guraso horiek familia eta lana uztartzeko dituzten zailtasunekin.

4. MARRAZKIA: HEZKUNTZA SISTEMAREN ESKU UZTEA. IRAKASLEEN ETA GURASOEN IKUSPEGIA, 2010

**Irakasleek** sentitzen dute guztiaz arduratu behar dutela. Baliabide berdinak daude eta errealitate anizkunei eta premia berriei aurre egin behar zaie. Eginkizunak esku uztea ez da guztiz erreala.

**Kezkak**: autoritate-galtzea, mugikortasuna eta baliabiderik eza.

**Gurasoek** uste dute eginkizunak esku uztea ez dela kapritxo bat, eta irakasleek errealitate berrira egokitu behar dutela**.**

**Kezkak**: inbertsio publiko eskasa, baliabide espezializaturik eza eta talentu pertsonalak aurkitzeko sistemak duen ahalmena.

**EZTABAIDA:**

Zertarako da eskola? Zertarako nahi dugu gurasoek? Eskolak jakintzak jasotzeko tokia izan behar du, edo balioak, estrategiak eta bizitzarako tresnak eskuratzeko? Produkzio-sistemaren osagarria izan behar al du eskolak, edota eskolak duen garrantziak izan behar al du produkzio-sistema osoaren ardatza?

**GERTATUTAKO GIZARTE ALDAKETAK:**

- Gizartearen premiak aldatu egin dira
- Irakasleek, gurasoek eta gizarteak -oro har- modu desberdinean ikusten dute eskola gaur egun

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

Hezkuntza-eremuaren esku utzitako beste eginkizunetako bat –beste garai batzuetan baino neurri handiagoan– haurrak eta nerabeak **balioetan hezteko** eginkizuna izan da. Lehen irizpide

[34] EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. Op. Cit.

komun eta zorrotz gutxi batzuetan oinarritzen zen hezkuntza, baina gaur egun jarraibide ugari daude, batzuetan kontrajarriak, eta agente askok eta oso desberdinek dute eragina haurren eta nerabeen sozializazioan (familiak, eskolak, komunikabideek eta abar); horregatik, irakasleak mugatuta sentitzen dira haurrek eta nerabeek familia-giroan hartutako ohitura batzuk (adibidez, telebista ikusiz gosaltzea eta afaltzea) aldatu nahi dituztenean. Ildo horretan, badirudi **balioen hezkuntzan bete beharreko eginkizunen muga zein den** eta zein balio jorratu behar diren **erabakitzerakoan ez dagoela akordiorik familien eta hezkuntza-eremuaren artean**.

### Egungo hezkuntza-ereduak ez ditu agenteen arteko harremanguneak sustatzen

Hainbat adituk[35] gogoeta egin dute **hezkuntza-eredua aldatzearen eta, era horretan, jakintzaren transmisio hutsetik harremanguneak berreskuratzera** igarotzearen alde jarduteak duen garrantziari buruz. Ideia honako hau da: ikastetxeak komunitatera irekitzea eta ikastetxeetan haurren eta nerabeen hezkuntzan inplikatuta dauden agenteak sartzea, ikastetxeak parte diren gizarte-ingurunearen errealitatetik aldendu gabe. Horretarako, beharrezkoa izango litzateke **familiak, irakasleak eta haurrak eta nerabeak harremanetan jartzeko guneak berreskuratzea eta sustatzea**, hezkuntza berriz ere zeregin partekatua izan dadin eta erantzukidetasuna ahalbidetu dadin

Irakasleek eta ikasleek gaur egun dituzten harremanak eta garai batean zituztenak alderatzen baditugu, esan dezakegu **harreman horiek estutu egin direla eta, nolabait ere, konfiantzazkoak izaten direla.** Hala ere, hezkuntza-eremutik ikusten da nerabeekin komunikatzeko nolabaiteko zailtasunak daudela: alde batetik, irakasleen autoritate-maila jaistearen ondorioz, nerabeek errespetu falta handiagoa agertzen dute (bigarren hezkuntzan hitzezko agresibitate handiagoa dago), eta bestetik, gela barruan izaten diren gatazka batzuk ikastetxean derrigorrez egon behar duten ikasle batzuen motibazio eskasarekin lotuta daude.

Era berean, egiaztatzen da zailtasunak daudela familien eta gurasoen artean behar bezalako harremanak ezartzeko. Harreman horiek urriak eta, batzuetan, korapilatsuak edo gatazkatsuak izaten dira. Ildo horretan, ikastetxeei buruz Arartekoak egindako txosten berezi baten arabera[36], garrantzitsua da irakasleen eta familien arteko loturak nahiz lankidetza hobetu daitezen bultzatzea.

### Hezkuntza-ereduak ez ditu haurren eta nerabeen ahalmenak baliatzen

Ikuskera hori, halaber, harremanetan dago **haurrei eta nerabeei buruzko ikuspegi integralagoa** hartzearekin, eta **haurren eta nerabeen ahalmenak baliatzearen** alde egiten duten hezkuntza-eredu berriekin. Eredu horiek, gainera, **pertsona gisa heltzearekin**, hots, gaitasunak eta trebetasunak (komunikazioa, gizarte-trebetasunak eta elkarreragiteko trebetasunak) gazte-gaztetatik hartzearekin **lotutako emantzipazio goiztiarraren** alde lan egiten dute.

Ikuspegi horren arabera, gainera, kolektiboa ez da hartzaile hutsa, eta bideak eta tresnak sortzen dira kolektibo horrek **parte-hartze aktiboa** izan dezan, aukera gutxiago dituztenen parte-hartzea zainduz. Ikastetxeak, edonola ere, gaur egungo haur eta nerabeentzat egokitu behar dira. Horren haritik, esan behar dugu ikastetxeak neurriak hartzen ari direla zentzu horretan, batez ere bizikidetza-planen bitartez (2008-2009 ikasturtean, ikastetxeetako 369 proiekturako diru-laguntzak eman zituen Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak[37]); nolanahi ere, ikasleek diotena kontuan

[35] HAUR ETA NERABEEN DEFENTSA BULEGOA. Haur eta nerabeen egoerari buruzko azterlana, haien eskubideen eta bizi-kalitatearen ikuspegitik. Op. Cit.
[36] ARARTEKOA. Adingabekoei balioak transmititzea. Arartekoaren txosten berezia. Op. Cit.
[37] Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Hezkuntza Saila

hartzen badugu, ikus dezakegu 14-17 urteko 10 adingabetatik 7k uste dutela beren ikastetxeetan ez dutela hitzik zer jarduera egin erabakitzeko[38].

46. TAULA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEN IRITZIA IKASTETXEAN HOBETU BEHARREKO ALDERDIEI BURUZ. 2010

| LEHEN HEZKUNTZA | BIGARREN HEZKUNTZA |
|---|---|
| - Janaria aldatzea<br>- Ikastetxetik atera ahal izatea jolas-orduan<br>- Askatasun gehiago<br>- Igogailua edo eskailera mekanikoak<br>- Eskola-orduak murriztea<br>- Etxeko lanen maila jaistea<br>- Ikastetxeko aisiaguneak hobetzea (patio handiagoa, kulunka gehiago, futbol-zelai hobea)<br>- Jolasguneak jartzea (joko-aretoak)<br>- Zenbait irakasle aldatzea<br>- Komunak berritzea<br>- Ordenagailu gehiago izatea<br>- Eskolako ospetsuena izatea jende guztia ezagutzeko eta fama izateko<br>- Ordu gehiago patioan<br>- Patioak futbol-zelaietan dagoenaren moduko soropila izatea<br>- Igerileku bat<br>- Euria egiten duenerako patio estalia<br>- Futbola ez diren bestelako jardueretarako lekua izatea patioan<br>- Jolas-parkea egitea | - Gauzak gordetzeko armairuak izatea<br>- Zenbait irakasle aldatzea<br>- Eskailera mekanikoak edo igogailua<br>- Eskoletarako teknologia gehiago (ordenagailuak, arbel teknologikoak eta abar)<br>- Gai gutxiago edo hobeto banatuta<br>- Patioa handitzea<br>- Baloiak oso altu botatzen direnean eta hormaren gainetik igarotzen direnean, baloiak ez galtzeko sistemaren bat.<br>- Ikastetxearen instalazioak hobetzea<br>- Eskolak goizetik soilik izatea<br>- Salmenta-makinak<br>- Janaria aldatzea |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

Hala eta guztiz ere, hezkuntza-eremutik adierazten da hezkuntza-sistema zentzu horretan egokitzea gaur egun eragozten duten hainbat alderdi izan behar direla kontuan: **irakasleen** etengabeko **mugikortasuna**, zeinak hainbat ondorio dituen, hala nola arazo gehien dituzten haurrei eta nerabeei epe luzerako jarraipena egitea eragoztea edo kolektiboarentzako etengabeko erreferenteak ezartzea; **ikastetxeak eta irakasleek autoritatea galtzea** (gurasoen, haurren eta nerabeen eta, oro har, gizartearen aldetik); **hezkuntza-proiektu zehatzik eta irizpide homogeneorik ez izatea**, hezkuntza-mailak eraginpean hartzen dituzten legeetan eta dekretuetan aldaketak egiten baitira etengabe, disfuntzioak eta abar sortuz.

## Hezkuntza-premia bereziak dituzten adingabeei arreta emateko erantzuna indartu behar da

Bestalde, Arartekoak 2011n argitaratutako *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak* deituriko Txosten berezian[39] azaltzen diren datuak kontuan hartzen baditugu, ikus dezakegu azken hamar urte hauetan, hiru euskal lurraldeetan, igo egin dela hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen proportzioa; hortaz, EAE osoan, eskolatuta dauden ikasleen % 3,4 hezkuntza-premia berezi mota hori duen ikasletzat hartzen da. Horregatik, ikastetxe asko ez dira behar adinako erantzuna ematen ari beren ikasleen aniztasunari; horretaz gain, ikusten da baliabideen gabezia dagoela, baita ikasle mota hori irakaskuntza ez-arautuko baliabideetara bideratzeko joera ere.

---

[38] ESPAINIAKO GOBERNUA. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. Op. Cit.

[39] ARARTEKOA. Eusko Legebiltzarrerako ohiko txostena. Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak. 2011

## Jazarpena gero eta adin txikiagoetan hasten da, eta tresnak dibertsifikatu egin ditu

Haurrek eta nerabeek **beren berdinekin** ikastetxean **dituzten harremanekin oso pozik daudela** adierazten duten arren, haur eta nerabe horien arteko gatazka gehienak desberdintzat hartzen dituzten pertsonei (beren itxura fisikoarengatik nahiz atzerritar jatorria izateagatik) ezartzen zaizkien bazterketa-portaerekin lotuta egoten dira.

47. TAULA: BERDINEN ARTEKO GATAZKAK LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEN ARABERA. 2010

| | LEHEN HEZKUNTZA |
|---|---|
| Ohiko gatazkak | - *"Iseka egiten dizute" "Berria zarelako baztertzen zaituzte"*<br>- Liskarrak eta irainak. Normalean, irain horiek itxura fisikoarekin edo eramaten den arroparekin zerikusia izaten dute. Beste iseka batzuek ohikoak ez diren izen edo abizenekin zerikusia izaten dute.<br>- Jolasetan parte hartzen ez uztea |
| Ezohiko gatazkak | - Adingabe *atzerritarrekin* harreman txarrak izatea, portaera zakar edo erasokorrak dituztelako[40]<br>- Indarkeria fisikoko kasuak |
| | **BIGARREN HEZKUNTZA** |
| Ohiko gatazkak | - Isolatuak eta baztertuak diren pertsonak, edertasun-kanon jakin batzuk ez betetzeagatik, desberdinak direlako, nabarmentzen den ezaugarri fisikoren bat dutelako *"itsusiak direlako"* edo *"gizenak direlako"* edo klaseko gaiez interesa azaltzen dutelako. |
| Ezohiko gatazkak | - Edertasun-kanonak betetzen ez dituzten edo klaseko gaiez interesa azaltzen duten pertsonei ("*enpolloiak*") irainak egitea.<br>- Mutilen eta nesken arteko gatazkak pertsona bera gustatzen zaielako.<br>- Bulling edo eskola-jazarpen kasuak.<br>- Ikasle atzerritarrekin borrokak eta irain arrazistak.<br>- Institutuan sortzen den estresak eta tentsioak eragindako indarkeriazko gatazkak.<br>- Harreman gatazkatsuak dituzten talde desberdinen artean sortutako gatazkak.<br>- Besteen aurrean lider gisa edo harro gisa agertzen diren pertsona jakin batzuek eragindako gatazkak. |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

*2006ko Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistikaren* datuen arabera, Euskadiko 6-16 urteko ikasleen % 3k adierazi du eskolan integratzeko arazoren bat duela. Ehuneko hori zertxobait igotzen da mutilen kasuan, baina ikusten da nazionalitatearen arabera aldea askoz ere nabarmenagoa dela, naziokoak ez diren adingabeen artean integratzeko arazoak dituela adierazten dutenen ehunekoa % 7,7 baita; naziokoak direnen kasuan, aldiz, zifra hori % 2,7ra jaisten da[41].

Muturreko kasuetan, berdinen arteko gatazkak eskola-jazarpena edo mobbing-a dira. Arartekoaren [42] deituriko txosten berezian biltzen denez, 2008/2009 ikasturtean, 77 salaketetatik **tratu txarren 40 kasu** izan ziren. Txosten horretan nabarmentzen da kasu mota hori areagotu egiten dela Bigarren Hezkuntzan; izan ere, ziklo horretan, zuzeneko eraso fisikoak erasoaren alde esanguratsuak dira, eta zaintza-neurriak areagotzea da neurri ohikoena edo hedatuena.

Nolanahi ere, irakasleek adierazten dute **erasoa gero eta adin txikiagoetan** hasten dela (baita haur-hezkuntzan ere). 2009an, EAEko lehen hezkuntzako biztanleriaren % 17 inguruk esan du tratu txar motaren bat (hitzezkoa, soziala, fisikoa, sexuala, norberaren gauzei eraso egitea edo ciberbulling-a) pairatzen duela ikastetxean maiz edo beti; ehuneko hori 2005ekoaren antzekoa

40 Informazioa zabaltzeko, "Berdinen arteko harremanak eta gatazkak" idatz-zatia kontsultatu "Ingurunea eta gizarteratzea" kapituluan.
41 EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika (GZEE). 2006
42 ARARTEKOA. Eusko Legebiltzarrerako ohiko txostena. Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak. Op. Cit.

da, baina 2008koa baino zertxobait handiagoa (% 15,50). Mutilen artean, ehunekoak zertxobait handiagoak dira: % 18; nesken kasuan, aldiz, % 15; joera hori aurreko urteetakoaren antzekoa da[43]. Esan behar dugu, halaber, **informazioaren eta komunikazioaren teknologiak berdinen arteko jazarpen-tresna berriak direla nerabezaroan** (pertsona bati ez dagozkion argazkiekin etiketatzea, pertsona bati argazkiak atera eta Interneten jartzea, beste pertsona baten twenty-an sartzea eta haren itxurak egitea eta abar).

48. TAULA: TRATU TXARREN BIKTIMAK DIREN (askotan edo beti) LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEAK. 2005., 2008. eta 2009. urteak

| 2005 | 2008 | 2009 |
|---|---|---|
| 17.7 | 15.5 | 16.9 |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Eusko Jaurlaritzaren Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI). Ikaskideen arteko tratu txarra. 2009

49. TAULA: TRATU TXARREN BIKTIMAK DIREN (askotan edo beti) BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEAK. 2005., 2008. eta 2009. urteak

| 2005 | 2008 | 2009 |
|---|---|---|
| 11.9 | 10.6 | 11.9 |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Eusko Jaurlaritzaren Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI). Ikaskideen arteko tratu txarra. 2009

50. TAULA: NONGOAK DIREN ERASOTZAILEAK LEHEN HEZKUNTZAKO BIKTIMEN ARABERA. 2008. eta 2009. urteak

| | 2008 | 2009 |
|---|---|---|
| Nire taldekoak | 43.5 | 42.6 |
| Nire ikasmailakoak, baina ez nire taldekoak | 15.7 | 23.5 |
| Goragoko ikasmaila batekoak | 17.9 | 15.7 |
| Ikastetxetik kanpoko pertsonak | 14.9 | 11.5 |
| Beheragoko ikasmaila batekoak | 7.9 | 6.7 |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Eusko Jaurlaritzaren Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI). Ikaskideen arteko tratu txarra. 2009

51. TAULA: NONGOAK DIREN ERASOTZAILEAK BIGARREN HEZKUNTZAKO BIKTIMEN ARABERA. 2008. eta 2009. urteak

| | 2008 | 2009 |
|---|---|---|
| Nire taldekoak | 46,5 | 48,2 |
| Nire ikasmailakoak, baina ez nire taldekoak | 17,0 | 19,5 |
| Goragoko ikasmaila batekoak | 16,2 | 13,8 |
| Ikastetxetik kanpoko pertsonak | 12,1 | 12,1 |
| Beheragoko ikasmaila batekoak | 7,6 | 6,4 |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Eusko Jaurlaritzaren Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI). Ikaskideen arteko tratu txarra. 2009

52. TAULA: NON GERTATZEN DEN TRATU TXARRA LEHEN HEZKUNTZAKO BIKTIMEN ARABERA. 2008. eta 2009. urteak

| | 2008 | 2009 |
|---|---|---|
| Jolastokian | 36.7 | 32.6 |
| Ikasgelan | 16.5 | 16.6 |
| Edozein lekutan | 14.5 | 14.4 |
| Jantokian | 10.0 | 12.4 |
| Ikastetxetik kanpo, ikastetxeko ikasleek | 12.3 | 12.0 |

[43] EUSKO JAURLARITZA. Eusko Jaurlaritzaren Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI). Berdinen arteko tratu txarra. 2009

| | | |
|---|---|---|
| Korridorean | 5.7 | 6.8 |
| Komunetan | 4.2 | 5.3 |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Eusko Jaurlaritzaren Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI). Ikaskideen arteko tratu txarra. 2009

53. TAULA: NON GERTATZEN DEN TRATU TXARRA BIGARREN HEZKUNTZAKO BIKTIMEN ARABERA. 2008. eta 2009. urteak

| | 2008 | 2009 |
|---|---|---|
| Jolastokian | 20,6 | 20,4 |
| Ikasgelan | 33,8 | 35,1 |
| Edozein lekutan | 16,3 | 15,1 |
| Jantokian | 5,0 | 5,2 |
| Ikastetxetik kanpo, ikastetxeko ikasleek | 11,3 | 11,1 |
| Korridorean | 8,5 | 8,8 |
| Komunetan | 4,6 | 4,3 |

| Nerabeentzat esanguratsuak diren tokiak eta pertsonak | Nire familia, nire etxea, txaleta. | Nire txakurra, nire familia, nire adiskideak, oroitzapenak, txokoa. |
| Aire zabaleko jarduerak eta jolasguneak eta ondo pasatzeko tokiak | Baratzak, txabolak, natura, bizikletan ibiltzea, basoak, baserriak, egunsentia ikustera joatea, ilunabarra ikustera joatea | Naturan jolastea, etxolak egitea, basoan txabolak egitea, igerilekua. |
| Jaiak / Tabernak | Tabernak | Alkohola, parranda asko, kontzertuak. |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

86. TAULA: HIRI INGURUNEAN BIZI DIREN BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEK INGURUNEAREKIN DUTEN GOGOBETETZE MAILA, SEXUAREN ARABERA. 2010

| KATEGORIA | LOTUTAKO HITZAK | |
|---|---|---|
| | Neskak | Mutilak |
| Ingurunearen deskribapen positiboak | Segurtasuna, polita, lasaitasuna, ondo pasatzea | Hurbiltasuna, lasaitasuna, oso ederra, segurua |
| Ingurunearen deskribapen negatiboak | Zenbait kale asfaltatu behar dira, inguruan ez dago supermerkaturik, lana egotea nahi nuke, kanpoko hainbeste jende ez egotea nahi nuke, isolatuta, borrokak | Pasatzen diren mairuak |
| Ondo pasatzeko lekuak | Itsasadarra, Doña Casilda parkea | Mendiak, parkea, kiroldegia, paseoak |
| Jaiak / Lokalak / Tabernak | Giroa, jaiak, gaztetxea, lonjak, Pozas | Lonja, tabernak, jaiak |
| Etxekoak | Lagunak, auzo-giroa, auzoko jendea, Ikastolatik kanpoko jendea, gazteak, EH osoko jendea, jende gehiago ezagutzea, jende asko | Adiskideak, jendea, futboleko adiskideak, familia |
| Udalerri edo auzorako esanguratsuak diren lekuak, erakundeak edo pertsonak | Nire etxea, Donostia, San Roke, hazi eta bizitza osoan bizi izan naizen tokia, Aiete, Amara, La Salle, Pío Baroja, Zubi Zuri, Artxandape, Begoñazpi, Pupi, Deustu, Iñaki Azkuna, Ripa kalea, Ría 2000, Javi Martinez, Athletic, Deustuko Unibertsitatea, Vianako Printzearen kalea, BEC | Solokoetxe, Zazpi Kaleak, Barrika, Bilbo, Institutua, Prim-Fika, Santutxu, Uribarri, La Peña, Axular Lizeoa, nire etxea, Hernani, Metro, errepidea, Eskolapioak, San Mames. |
| Kultura / Turismoa | Museoak, Guggenheim | Euskara, kultura, kultura berbera, ohitura berberak, turismoa |
| Kontsumoa | Dendak, gozoki-dendak, Zubiarte, Bidarte | Dendak, Ikea, Mega-Park |
| Garraioa | Autobusak, abiadura handiko trena | Autoak, tranbia |
| Polizia | Polizia | Polizia |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

Argitaratu den *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren* azken *Erroldaren* arabera, 20 urtetik beherako EAEko gazteen **% 29** (0-4 urteko haurren kasuan % 31) **berdegune gutxi dituzten ingurunean kokatutako etxebizitza batean bizi zen**. Estatuan, berriz, ingurunean berdegunerik ez zuten adin horretako biztanleen proportzioa % 66ra igotzen da. Bestalde, **10 adingabe eta gaztetik 3**

**zarata-arazoak dituzten etxebizitzetan bizi dira** –kopuru hori ere estatuko batez bestekoaren azpitik dago nabarmen: % 47[62]–. Errolda horren arabera, **inguruan delinkuentzia- eta bandalismo-arazoak dituen etxebizitza batean bizi diren 20 urtetik beherako gazteen proportzioa % 13 da** –Estatuan, ordea, zenbateko hori bikoitza da: % 30–.[63]

6. MARRAZKIA: LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEK BEREN INGURUNEARI BURUZ DUTEN IKUSPEGIAREN ERAKUSKETA GRAFIKOA



Hiri-ingurunean bizi diren ikasleak




Landa-ingurunean bizi diren ikasleak

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

## Immigrazioa bazterkeriarekin eta segurtasunik ezarekin parekatzen da

*EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa*[64] deituriko azterlan kualitatiboan azaltzen denez, pobreziak eta bazterkeriak segurtasunik eza eragiten dute, batez ere, hiri-eremuetan bizi diren haur eta nerabeen artean. Horretaz gain, haurrek eta nerabeek **ia automatikoki parekatzen dute immigrazioa bazterkeriarekin**, eta beraz, segurtasunik ezarekin. EAEko 15-19 urteko gazteen % 17k dio ez litzatekeela gustura egongo bizilagunak etorkin atzerritarrak izanez gero[65].

Ildo beretik, Arartekoaren *Adingabekoei Balioak Transmititzea*[66] deituriko txosten Berezian aipatzen denez, oro har esan daiteke kolektiboaren onartze-tasak arbuiatze-tasak baino handiagoak direla, baina arazorik kezkagarriena immigrazioa dela; adibidez**, 8-10 urteko**

62 ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALA (EIN). Biztanleen eta Etxebizitzen Errolda. 2001.

63 Ibidem

64 EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. Op. Cit.

65 EUSKO JAURLARITZA. Kultura Saila. *Euskadiko Gazteak* txostena. Op. Cit.

66 ARARTEKOA. Adingabekoei balioak transmititzea. Arartekoaren txosten berezia. Op. Cit.

**haurren ia herenek nahiago dute beren ikasgelan etorkinik ez izatea.** Era berean, nerabezaroan ere ikusten da joera hori, eta badirudi adin horretan arrazoi nagusiak atzerritarrei diru-laguntza gehiegi ematearekin lotzen direla, baita atzerritarrak gatazka sozioekonomikoen sortzaileak direla uste izatearekin ere.

### Haurtzaroan eta nerabezaroan balioen mapa familiarekin eta komunikabideekin dago lotuta hertsiki

Kontuan izan behar da helduen munduak garrantzi handia duela haurren eta nerabeen balioen mapa eratzerakoan; izan ere, aipatutako Arartekoaren txostenean adierazten denez, **haur txikienen balioen unibertsoa oso lotuta dago haur horien inguruan dauden helduekin,** haur horiek oraindik ez baitira hasi beren pentsamendua helduen pentsamendutik bereizten, eta, horregatik, ikaskuntzak baldintzatzen du haur horiek pentsatzen dutena[67].

**Haurrei eta nerabeei balioak** –bereziki irudiarekin edo indarkeriarekin lotutakoak– **transmititzeari** dagokionez eragina duen beste agente batzuen artean komunikabideak daude; horregatik, kontuan izan behar dira eta mugak jarri behar zaizkie komunikabideek igortzen dituzten mezuei (baita nerabeen kolektiboa etiketatzen laguntzen duten neurrian ere, kolektibo horri buruzko irudi negatiboa ematen baitute).[68]

### Gizarte-sarearen murrizketa eta prekarietatea haurtzaroan eta nerabezaroan, "*beldurraren kulturaren"* ondorio gisa

Hainbat agentek etengabe igortzen dituzte ingurunearen arriskugarritasunari buruzko mezuak, haurrek eta nerabeek prebentzio-jarrerak izan ditzaten. "Ez segurutzat" edo "arriskutsutzat" hartzen diren egoera horiek saihestera bideratutako **prebentzio-estrategia** horiek nerabezaroan garatzen dira batez ere. Estrategia horiek, nerabeek adierazten dutenez, bizi diren hiriko, auzoko edo udalerriko eremu ez-seguruak saihestea eta eremu horietatik derrigorrez igaro behar dutenean berdinen taldearekin batera joatea dute helburu. Arestian aipatutako azken azterlan kualitatibo horretan[69] aipatzen denez, estrategia mota hori gehiagotan ikusten da nesken artean, batez ere inguruneko arriskugarritasunari buruz gurasoek mutilei ematen dizkieten mezuak eta neskei ematen dizkietenak desberdinak direlako.

Beldurraren kultura horrek familiengan ere eragina du, eta haurrak eta nerabeak gehiago kontrolatzea bultzatzen du; horrenbestez, beren ingurunearekiko autonomia garatzeko aukera gutxiago dituzte haurrek eta nerabeek (etxean bakarrik egotea, hainbat gunetara joatea, eta abar). **Horrek, era berean, eragiten du haurren eta nerabeen gizarte-harremanen kopurua eta haurrek eta nerabek kalean ematen duten denbora murriztea**. Ingurunean modu librean, helduren baten gainbegirapean egon gabe, harremanetan egoteko dituzten aukera urriek eragiten dute haurrek eta nerabeek, batez ere haurtzaroan, gero eta harreman-sare eskasagoak izatea eta horrek eragitea sozializatzeko zailtasunak izatea eta batzuekin eta besteekin harremanak izateko gaitasun mugatuak izatea.

87. TAULA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEK IDENTIFIKATUTAKO ARRISKUAK ETA GATAZKAK. 2010

| | LEHEN HEZKUNTZA | BIGARREN HEZKUNTZA |
|---|---|---|
| **Identifikatutako arriskuak eta inguruneko gatazkak** | Atzerritarrak eta ijito-etniako pertsonak<br>Bazterkeria eta pobrezia<br>Gune arriskutsuak | Berdinen taldea<br>Atzerritarrak<br>Bazterkeria eta pobrezia<br>Gune arriskutsuak |

---

67 ARARTEKOA. Adingabekoei balioak transmititzea. Arartekoaren txosten berezia. Op. Cit.
68 Ibidem
69 EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. Op. Cit.

| | | |
|---|---|---|
| | Bizilagunekin elkarbizitza-arazoak (aparkaleku gutxi) | Zaintza eta kontrola |
| **Detektatutako joerak** | Gazteenek segurtasun-sentimendua dute ingurune errotuenean<br>Arriskuei eta helduen munduari buruzko diskurtso mitifikatua.<br>Bazterkeria eta pobrezia gogaikarritzat hartzen dira.<br>Berezkoak ez diren gatazkak eta diskurtsoak beren gain hartzea. | Ingurunearen arriskugarritasunari buruzko diskurtso errealistagoak.<br>Genero-desberdintasuna segurtasun-sentimenduan.<br>Bazterkeriari eta immigrazio-fenomenoari buruzko diskurtso landuagoa eta modulatuagoa.<br>Hiriko gune arriskutsuak argi eta garbi identifikatzen dituzte. |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

### Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek harremanak izateko formuletan eragiten dute

Berdinen arteko harremanek funtsezko garrantzia hartzen dute adingabearen bizitzan bere adinak gora egiten duen neurrian. Gune horretan sentitu ohi dute nerabeek batez ere erabaki gehiago hartu behar dituztela. **EAEko 14-17 urteko gazteak oso gustura daude, antza, lagunekin;** izan ere, harreman horri **8,68 puntu eman dizkiote 10 puntuko eskalan,** Estatuko maila gaindituz.[70]. Nolanahi ere, EAEko 14-17 urteko gazteen % 9,5 inguruk zailtasunak ditu lagun berriak egiteko, Estatuko batez bestekoa (% 8,4) zertxobait gaindituz. Hiri-ingurunean bizi diren gazteen kasuan, lagun berriak egiteko zailtasunak dituztenen ehunekoa handiagoa da landa-ingurunean bizi direnena baino (% 10 eta % 8,3, hurrenez hurren)[71].

Begi bistakoa da nerabezaroko harreman-formuletan eragin nabarmena izan duela **informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapenak**. Izan ere, EAEko 14-17 urteko gazteen % 35,6k dio baduela Internet bidez ezagututako lagun on bat, gutxienez, baina zuzenean ez duela ezagutzen, eta % 32k dio lagunekin Internet bidez txateatzen duela astean bi aldiz edo gehiagotan. Bi datu horiek Estatuko datuen oso antzekoak dira[72].

Esparru horretan, oso kontuan hartu behar da **10 nerabetik 4 inguruk txatean benetako informazioa eta informazio pertsonala emateak** izan dezakeen arriskua, baita **% 20k ezezagunekin pertsonalki elkartzea onartzeak** izan dezakeena ere[73]. Baina teknologia horiek erabiltzen dira, halaber, **beren lagun-sarearekin komunikatzeko** eta kolektiboak alderdi positiboak aldarrikatzen ditu. Adin-talde horretan dagoen ideia da ahalkea eta lotsa sortzen duten gaietarako edota heltzeko zailak diren arazoetarako errazagoa dela sarearen bitartez komunikatzea.

### Berdinen arteko harremanak nerabezaroan: oso errespetuzkoak ez diren komunikazio-estiloak eta jarrera sexistak

Bestalde, azterlanetan[74] agerian jartzen da berdinen arteko harremanak, batez ere nerabezaroan, **oso errespetuzkoak ez diren** eta helduen munduan nagusitzen direnetatik jaso diren **komunikazio-estiloetan** oinarritzen direla. Zehazki, aipatzen dute komunikabideek transmititutako diskurtsoek eta balioek eragin handia dutela **neska eta mutil nerabeen arteko gaur egungo harremanetan,** eta diskurtso nahiz balio horiek **oso sexistak direla**. Ildo horretan,

[70] ESPAINIAKO GOBERNUAREN OSASUN ETA GIZARTE POLITIKARAKO MINISTERIOA. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. Op. Cit.
[71] Ibidem
[72] ESPAINIAKO GOBERNUAREN OSASUN ETA GIZARTE POLITIKARAKO MINISTERIOA. Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterlana. Op. Cit.
[73] EMAKUNDE. EAEko nerabeak. Hurbilketa ahalduntzetik abiatuta. Op. Cit.
[74] EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. Op. Cit.

genero-rolen bereizketa zorrotza da, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren diskurtso orokorraren hedapena dela medio nahasketa sortzen da nesken artean, ez baitituzte eraso eta jokabide sexistak identifikatz, eta, beraz, ez dira horien aurka defendatzen.

### Nerabeek beren hurbileko ingurunearekin duten interesa jaitsi egin da. Ez dute ikusten parte hartzeko benetako aukerarik dutenik

Gaur egungo haurrak eta gazteak **askatasun handiagoko testuinguruan bizi eta hazten dira, eta horrek pentsatzeko eta askatasun handiagoz iritziak emateko aukera handiagoak ematen dizkie**. Horregatik, aipatzen da berezkotasuna eta hurbiltasuna direla belaunaldi berriak definitzen dituzten ezaugarriak. Nabarmentzen da belaunaldi horien pentsamoldea irekiagoa dela bizi dituzten egoeren (esate baterako, haurtzarotik hasten dira bidaiatzen eta horregatik esperientzia gehiago dituzte) eta ezagutzen dituzten pertsonen aniztasunaren ondorioz, baita erlijio-presio txikiagoa dutelako ere –15-29 urteko EAEko biztanleriaren % 43k adierazi du agnostikoa edo ateoa dela–[75].

Hori gorabehera, ikusten da beren ingurunean gertatzen diren gauzekiko interesa eta jakin-mina jaitsi egin dela, batez ere nerabeen kasuan, eta nabarmentzen da nerabeek ez dakitela beren hurbileko ingurunean gertatzen diren gauzei buruzko erabakiak hartzen parte hartzeko aukera dutela. Nerabe gutxik dakite erabakiak hartzeko non parte har dezaketen eta parte hartzeko gune horiek zein diren dakitenean, uste dute beren hitza ez dela kontuan hartuko daukaten adinarengatik, edota uste dute gune mota horrek ez duela ahalbidetzen benetako parte-hartzea.

Ararteko *Adingabekoei Balioak Transmititzea*[76] deituriko 2008ko txosten berezian aipatzen denez, **nerabeek ez dute erlijioaren, politikaren eta kulturaren inguruko gaiekiko interesik**, ez nerabe horien maila kognitiboan, ezta beren eguneroko jardueretan ere, eta gai horiei oso denbora gutxi eskaintzen dietela. Horregatik, ez da arraroa EAEko 15-29 urteko gazteen % 12k politika interesik ezarekin eta aspertzearekin lotzea; ehuneko berdinak ustelkeriarekin eta diruarekin lotzen du, eta % 24k, berriz, gezurrekin eta edukirik gabeko hitzekin[77].

88. TAULA: HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEARI BURUZKO ALDERDI OROKORRAK. 2010

- **Apenas hartzen dute kontuan parte hartzea** (batik bat, lehen hezkuntzan). Parte hartzeko estrategiak eta guneak ez dituzte bistaratzen, partaidetza ez dute eskubide gisa beren gain hartzen eta ez dute uste partaidetzak aldaketa edota beren helburuak lortzea ahalbidetzen duenik.
- **Errealitatea den bezalaxe onartzen dute**, kexak dituzte baina aldaketarako proposamenik ez dute egiten eta hori lortzeko biderik ez dago.
- Haur gazteenek hein handiagoan lotzen dute erabakiak hartzea kargu politikoekin, alkateekin eta abarrekin, edo beste modu batean esanda, **beren errealitatetik urrun dagoen**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

[75] EUSKO JAURLARITZA. Kultura Saila. Euskadiko Gazteak txostena. Op. Cit.
[76] ARARTEKOA. Adingabekoei balioak transmititzea. Arartekoaren txosten berezia. Op. Cit.
[77] EUSKO JAURLARITZA. Kultura Saila. Euskadiko Gazteak txostena. Op. Cit.

## Etorkizuneko proiekzioa nolabaiteko izaera kontserbadorea eta materialista duten bizitza-ereduekin eta bizimoduekin lotuta

Belaunaldi berrietan aldaketak daudela ikusten bada ere, haurrek eta nerabeek **gaur egun jarraitzen dute gizartean dauden ereduak errepikatzen,** familietan ikasitakoak nahiz erreferentziazko eredu berrietatik hartutakoak (eliteko kirolariak, ibiltokiko edo aldizkarietako modeloak, telebistako pertsonaiak eta abar). Aipatutako azterlan kualitatiboan[78] nerabeek beren etorkizunari buruz dituzten itxaropenei buruzko informazioa biltzen da, eta nabarmentzen da **oraindik ere aldeak daudela sexuaren arabera egin nahiko lituzketen ikasketei edo lanei dagokienez** (mutilek esaten dute astronauta, ingeniari eta abar izan nahi dutela; neskek, berriz, estetikalaria, irakaslea eta abar); nolanahi ere, ikusten da neska batzuek gizonenak izan ohi diren lanbideei lotutako etorkizuneko asmoak dituztela. Era berean, azterlan horretan nabarmentzen da nerabeen aurreikuspenak **nolabaiteko izaera kontserbadorea eta materialista duten bizitza-ereduekin edo bizimoduekin lotzen direla** (egonkortasunean eta dirua edukitzean oinarritutako egoerak, bikotekidearekin bizi izatea eta seme-alabak edukitzea, etxe propioa, lan egonkorra eta abar).

89. TAULA: HAURREK ETA NERABEEK BEREN ETORKIZUNARI BURUZ DUTEN IKUSPEGIA. 2010

**Nola ikusten duzue zuen burua hamar urte barru?**

- Ikasten, eta denboraldi baterako, Ingalaterran edo Frantzian ikasketa-egonaldi bat egiten
- Ikasten, pisua partekatzen eta seme-alabekin, lanean eta bidaiatzen
- Ikasten, bidaiatzen eta asteburuetan lan egiten
- Buru-belarri ikasten, lanean hasi baino lehen
- Adiskideekin pisua partekatzen, lanean dirua aurrezteko eta atzerrira joan ahal izateko

**Mutilak:**

- Elektrizitate- eta elektronika-gaietan lan egiten
- Nire hiritik kanpo ikasten
- Mekanikari-lanak egiten, bikotekidearekin (ezkondu gabe), eta neurea den etxe betan bizitzen saiatuko nintzateke
- Lanean, bikotekidearekin (saiatu naiz, behinik behin), seme-alabarik gabe
- Ikasten eta asteburuetan lan egiten, bikotekidearekin baina seme-alabarik gabe, eta neure etxean
- Lanean eta medikuntza ikasten, gurasoekin bizitzen baina bikotekidearekin
- Lanean edo ikasten, bikotekidearekin baina seme-alabarik gabe, eta gurasoen etxean; dirua irabazten dudanean, pentsatuko dut nola lortu neure etxe propioa
- Suhiltzaile gisa lan egiten, bikotekidearekin baina seme-alabarik gabe, eta neure etxe propioan

**Neskak:**

- Lanean, bikotekidearekin eta alaba batekin
- Astronomia ikasten, neure etxe propioan eta bikotekidearekin baina seme-alabarik gabe
- Unibertsitatean ikasten, neure etxe propioan eta bikotekidearekin
- Haur txiki batekin, praktiketan lanean eta medikuntza ikasten, bikotekidearekin eta neure etxe propioan bizitzen
- Interiorismo-ikasketak amaitzen, lan bila, txalet batean bikotekidearekin bizitzen baina seme-alabarik gabe 28 urte bete arte; orduan, seme-alabak izango ditut
- Asteburuetan denda batean egingo dut lan, eta ikasi egingo dut aldi berean; bikotekidea izango dut, ezkondu gabe, eta gurasoen etxean biziko naiz pisu bat alokatzeko dirua lortu arte.

90. TAULA: HAURREN ETA NERABEEN BALIOEN DESKRIBAPENA, IRAKASLEEN ETA GURASOEN ARABERA. 2010

| LEHEN HEZKUNTZA |
| --- |

[78] EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. Op. Cit.

- Berdinen taldearekiko eta gurasoekiko komunikazioan errespetu-faltak agertzen hasten dira
- Adin horretan, oso “markistak” izaten hasten dira, eta portaera klasistak ikusten dira
- Talde horretan, berdinen arteko harremana konparaketetan oinarrituta dago hein handi batean: *“horrek dauka edo hark egiten du”*
- Adin-talde horretako gizarte-harremanak oso itxiak izan ohi dira, eta eskola-esparrura mugatuta egon ohi dira. Batzuetan, erlazionatzeko gizarte-abileziarik ez dutela uste dute
-- Irakasleen hitzetan, haurrek ez dakite bakarrik jolasten, ezta gauza jakin batzuk egiten ere, horren truke sariren bat jasotzen ez badute. Ideia hori haurrek autonomiarik ez izatearekin eta sarien bitartez lehiakortasuna bultzatzen duen eredu amerikarrarekin lotuta dago.
- Irakasleen hitzetan, telebista ikusten eman ohi duten denborak eragina du adin-talde horretan mundua ikusteko duten moduan. Genero-rolei edota bikote-harremanei dagokienez erabat estereotipatuta egon ohi diren mezuak igortzen ditu telebistak (esate baterako, *Disney Channel* kanalean)

## BIGARREN HEZKUNTZA

- Nerabezaroa funtsezko garaia da, eta luzatu eta aurreratu egin da
- Segurtasun-gabeziak izaten hasten dira (ziklo horretan, urduriago egon ohi dira, eta batere seguru ez; 12-14 urterekin hasten da hori)
- Gizarteak eta gurasoek onenak izatea exijitzen diete. Emaitzak lortzeko presio handia dute, eta horrek estresa eta antsietatea sortzen du
- Interes gutxi erakusten dute inguruan gertatzen diren gauzekin
- Oso zorrotzak dira beren eskubideekin (*“dena eskubide gisa ikusten dute, ahaleginik gabe, beren eskubide guztiak lortzen dituzte”*), eta argi dute familiak eta gizarteak babesten dituztela, batzuetan, baita ekintzak alde batera utzita ere

Gauzatutako delitu-egintzak zigorgarriak ez direla badakite, eta horrek nolabaiteko boterea ematen die. Botere handia dute eta horretaz baliatzen dira

- Eskubideen eta betebeharren arteko gatazka sortzen da. Eskubideak teoriari dagokionez kontrolatzen dituzte eta beti planteatzen dituzte, baina familiak eta gizarteak (orokorrean ) adingabeak gehiegi babesten dituztelako, dituzten betebeharrak zeintzuk diren ez dakite ondo, edo betebehar horiek bigarren mailako garrantzia izan ohi dute
- Ahaleginik gabe lortu nahi dute dena, gutxi lan egitearekin eta diru asko irabaztearekin amesten dute. Telebistak eta gizarteak (orokorrean) transmititzen dituzten ereduei jarraiki, zenbait pertsonak inolako ahaleginik egin gabe aberastea lortzen dute; hori da, hain zuzen, gizarte-arrakastaren seinale berria
- Gertatzen zaizkien gauzei heltzerakoan nahasmendu emozional garrantzitsua dutela agerian geratzen da: *“erabat nahasita daude”.* Ematen duenez, emozioak behar bezala kudeatzeko arazoak dituzte nerabeek
- Nerabeen portaera sutsuagoa da gaur egun, gizarteak aukera ugari eskaintzen baitizkie eta bizi diren mundua korapilatsua baita
- Homofobiazko jarrerak eta portaerak ikusten dituzte irakasleek

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

91. TAULA: HAURREN ETA NERABEEN ALDERDI POSITIBOAK, IRAKASLEEN ETA GURASOEN ARABERA. 2010

| IRAKASLEAK | GURASOAK |
|---|---|
| - Helduekiko **konfiantza** eta hurbiltasun **handiagoa** dute<br>- **Informazioa hobeki maneiatzen dute**; halere, hori behar bezala ez dira erabiltzen ari, antza<br>- **Prestakuntza handiagoa**; halere, emaitzen eskakizuna ere handiagoa da<br>- Komunikazioaren **teknologiak maneiatzen dituzte** (Internet, mugikorra eta abar)<br>- **Askatasun** handiagoko testuinguruetan bizi dira, eta horri esker, naturaltasun handiagoa dute elkarrekiko eta helduekiko harremanetan.<br>- Askatasuna kentzen dieten gaiekin **jarrera kritikoagoa** dute; aitzitik, “*gero* | - **Aldi berean hainbat lan egiteko** gai dira, esate baterako, Interneten daudela, informazioa kontsultatzen ari dira eta aldi berean, musika jaisten edo lagunekin txateatzen<br>- **Informazioa beste modu batean kudeatzen** eta xurgatzen dute, arinagoak eta eraginkorragoak diren prozesu mentalen bitartez, hain zuzen ere. Horri dagokionez, helduagoak dira (betiere duten adina kontuan hartuz), berehala maneia dezaketen informazio kantitateari dagokionez<br>- Informazioari dagokionez, aukera eta sarbide gehiago dituzte, “***aukeren belaunaldia da***”. Toki gehiagotara bidaiatzeaz gain, leku eta pertsona desberdinak ezagutuko ditu egungo belaunaldiak<br>- **Pentsamolde irekiagoa dute**, askotariko egoerak eta pertsonak ezagutzen baitituzte. Halaber, mundura irekiagoak daude<br>Gurasoekin eta irakasleekin (oro har, heldu guztiekin) dituzten **harremanak hurbiltasun handiagokoak dira**, eta komunikazio handiagoa dago.<br>- Bekatuari eta munduaren ikuskerari dagokienez, **presio kristaua desagertu da** (horren arabera, dena ongiaren edo gaizkiaren |

| | |
|---|---|
| *ez dakite argudiatzen*” | barrukoa da, tartean ez dago ezer ere), eta beraz, lasaitasunez gaindi ditzaketen aukera eta bizipen gehiago dituzte<br>- **Askatasun handiagoa dute,** baina horren truk, gurasoek eta irakasleek mugak eta arauak ezartzeko zailtasun handiagoak dituzte<br>- **Baketsuagoak eta elkarrizketarako irekiagoak dira** |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010

## Arriskuko eta gizarte-babesgabetasuneko egoerak

Adingabeen pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokak, gehienetan esplotazio-egoeren jatorrian egon ohi denak, leku nagusia izan behar du esku hartzeko helburuetan. **Premiarik oinarrizkoenak estaltzeko behar adina diru-sarrerarik ez izateko arriskua 15 urtetik beherako adingabeen % 6k pairatzen zuen 2008an,** 2004ko ehunekoa baino zertxobait handiagoa da (% 5,3) eta biztanleria guztiaren ehunekoa baino handiagoa (% 4,1)[79].

2008an, **10 adingabetatik ia 2 ongizaterik ezeko arriskuan daude** (baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea gizarte jakin batean espero diren ongizateko eta erosotasuneko gutxieneko mailei eusteko beharrezkotzat hartzen diren ohiko gastuei aurre egiteko epe laburrean), 2004ko datuak baino ehuneko zertxobait handiagoa (% 17,70). Nolanahi ere, intzidentzia hori, Euskadiko biztanleria orokorraren kasuan, % 14 da; horrenbestez, berriro berresten da pobreziaren intzidentzia handiagoa dela haurren artean[80].

Ikuspegi hori osatzeko, seme-alabak kargura dituzten familien pobrezia-adierazleak izan behar dira kontuan. Izan ere, etxekoen unitateei buruzko inkestaren arabera, 2008an **seme-alabak kargura dauzkaten EAEko etxekoen unitateen % 34k ez du ezohiko gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik.** Beste **% 12k ez du diru-sarrera nahikorik bere seme-alaben ikasketak ordaintzeko,** eta, halaber, **seme-alabak kargura dituzten Euskadiko etxekoen unitateen % 12k ez du diru-sarrera nahikorik bere haurrak zaintzeko pertsona bat kontratatzeko**. Behar adina diru-sarrerarik ez izateko egoera horiek guztiek eragin handiagoa dute guraso bakarreko familietan. Muturreko kasuetan, oinarrizko premiei erantzuteko arazoak dituzten eta seme-alabak kargura dituzten Euskadiko etxekoen unitateen ehunekoa 2004koaren bikoitza da –% 5,35 2008an, eta % 2,79 2004an–[81].

92. TAULA: EZOHIKO GASTUEI AURRE EGITEKO DIRU-SARRERA NAHIKORIK EZ DUTEN ETXEKOEN UNITATEAK. 2008

| Etxekoen unitate motak | Etxekoen unitateak | Intzidentzia-tasa | Intzidentzia-tasa larria | Lehentasun-indizea | Garrantzi-indizea | Larritasun-indizea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Pertsona bakarrekoa | 144.598 | 44,2 | 26,8 | 11,4 | 0,765 | 0,607 |
| Kide anitzekoa, ahaidetasunik gabe | 11.011 | 45,9 | 24,6 | 7,8 | 0,745 | 0,535 |
| Familia, nukleorik gabe | 13.259 | 26,1 | 14,6 | 6,4 | 0,758 | 0,559 |
| Seme-alabarik gabeko ezkontideak | 47.080 | 32,3 | 17,2 | 6,5 | 0,729 | 0,531 |
| Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak | 284.791 | 32,0 | 15,9 | 4,6 | 0,719 | 0,498 |
| Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak | 88.486 | 28,9 | 14,5 | 4,5 | 0,715 | 0,504 |
| Seme-alabak izan dituzten ezkontideak | 124.377 | 29,2 | 12,9 | 8,7 | 0,697 | 0,444 |
| Mendeko seme-alabak dituzten ezkontide izandakoak | 24.724 | 63,3 | 41,1 | 7,8 | 0,778 | 0,650 |
| Mendeko seme-alabarik ez duten ezkontide izandakoak | 38.814 | 36,4 | 23,9 | 6,1 | 0,773 | 0,658 |
| Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra | 1.522 | 41,9 | 27,3 | 0,0 | 0,774 | 0,652 |
| Mendeko seme-alabarik ez duen guraso bakarra | 766 | 79,6 | 35,3 | 15,4 | 0,778 | 0,444 |
| Nukleo anitzekoa | 14.949 | 47,2 | 24,4 | 4,3 | 0,702 | 0,516 |
| Guztira | 794.378 | 35,1 | 18,8 | 6,8 | 0,734 | 0,537 |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Etxekoen unitateei buruzko inkesta, 2008.

[79] EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Familiei buruzko inkesta, 2004. eta 2008. urteak.
[80] Ibidem
[81] Ibidem

93. TAULA: SEME-ALABEN IKASKETAK ORDAINTZEKO DIRU-SARRERA NAHIKORIK EZ DUTEN ETXEKOEN UNITATEAK. 2008

| Etxekoen unitate motak | Etxekoen unitateak | Intzidentzia-tasa | Intzidentzia-tasa larria | Lehentasun-indizea | Garrantzi-indizea | Larritasun-indizea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Pertsona bakarrekoa | 144.598 | 0,2 | 0,1 | 0,0 | 0,574 | 0,467 |
| Kide anitzekoa, ahaidetasunik gabe | 11.011 | 1,9 | 1,9 | 0,0 | 1,000 | 1,000 |
| Familia, nukleorik gabe | 13.259 | 1,2 | 0,0 | 0,0 | 0,600 | 0,000 |
| Seme-alabarik gabeko ezkontideak | 47.080 | 0,8 | 0,0 | 0,0 | 0,600 | 0,000 |
| Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak | 284.791 | 10,9 | 5,2 | 0,5 | 0,710 | 0,475 |
| Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak | 88.486 | 0,3 | 0,0 | 0,0 | 0,600 | 0,000 |
| Seme-alabak izan dituzten ezkontideak | 124.377 | 0,4 | 0,2 | 0,0 | 0,689 | 0,487 |
| Bikotekidearekin bizi izandako gurasoa eta seme-alabak, gurasoen kontura bizi direnak | 24.724 | 28,6 | 19,1 | 0,5 | 0,802 | 0,668 |
| Mendeko seme-alabak dituzten ezkontide izandakoak | 38.814 | 0,8 | 0,2 | 0,2 | 0,711 | 0,277 |
| Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra | 1.522 | 7,5 | 0,0 | 0,0 | 0,600 | 0,000 |
| Mendeko seme-alabarik ez duen guraso bakarra | 766 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | | |
| Nukleo anitzekoa | 14.949 | 18,0 | 7,2 | 0,8 | 0,619 | 0,398 |
| Guztira | 794.378 | 5,4 | 2,7 | 0,2 | 0,717 | 0,493 |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Etxekoen unitateei buruzko inkesta, 2008.

94. TAULA: SEME-ALABAK ZAINTZEKO PERTSONA BAT KONTRATATZEKO DIRU-SARRERA NAHIKORIK EZ DUTEN ETXEKOEN UNITATEAK. 2008

| Etxekoen unitate motak | Etxekoen unitateak | Intzidentzia-tasa | Intzidentzia-tasa larria | Lehentasun-indizea | Garrantzi-indizea | Larritasun-indizea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Pertsona bakarrekoa | 144.598 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,000 | 0,000 |
| Kide anitzekoa, ahaidetasunik gabe | 11.011 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,000 | 0,000 |
| Familia, nukleorik gabe | 13.259 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,000 | 0,000 |
| Seme-alabarik gabeko ezkontideak | 47.080 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,000 | 0,000 |
| Mendeko seme-alabak dituzten gurasoak | 284.791 | 11,2 | 6,7 | 0,4 | 0,766 | 0,602 |
| Mendeko seme-alabarik ez duten gurasoak | 88.486 | 0,2 | 0,2 | 0,0 | 0,800 | 1,000 |
| Seme-alabak izan dituzten ezkontideak | 124.377 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,000 | 0,000 |
| Mendeko seme-alabak dituzten ezkontide izandakoak | 24.724 | 17,7 | 15,1 | 0,6 | 0,897 | 0,853 |
| Mendeko seme-alabarik ez duten ezkontide izandakoak | 38.814 | 0,3 | 0,3 | 0,0 | 0,800 | 1,000 |
| Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarra | 1.522 | 18,1 | 18,1 | 9,0 | 0,901 | 1,000 |
| Mendeko seme-alabarik ez duen guraso bakarra | 766 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,000 | 0,000 |
| Nukleo anitzekoa | 14.949 | 6,2 | 3,2 | 0,0 | 0,645 | 0,512 |
| Guztira | 794.378 | 4,8 | 3,0 | 0,2 | 0,779 | 0,635 |

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Etxekoen unitateei buruzko inkesta, 2008.

Baina, era berean, garrantzitsua da babesgabetasuneko beste egoera batzuk aintzat hartzea. Esate baterako, Administrazioak **adingabeen zaintza edo tutoretza**[82] bere gain hartzen duen kasuak 2.000 baino gehiago ziren 2008an.[83]. 2007an, ia 1.400 adingabe egoitza-harreran edo administrazio-arloko familia-harreran zegoen. % 22k administrazio-arloko familia-harrera zuen, hau da, adingabea zaintzeko, harekin egoteko, elikatzeko, hezteko eta hezkuntza emateko konpromisoa hartu zuen familia batek hartu zuen[84].

[82] Zaintza honetan datza: pertsona edo instituzio publiko batek adingabe bat jasotzen du aldi baterako eta adingabe horren guraso-ahalaren titularren borondatez, eta adingabea zaintzeko, harekin egoteko, elikatzeko eta hezteko betebeharra hartzen du bere gain, baita hari prestakuntza integrala eskaintzekoa ere. Bestalde, tutoretza aurreko ahaiderik ez duen edo aurreko ahaideak izanda ere guraso-ahala bete ezin duten ahaideak dituen adingabeari tutorea ematean datza.

[83] OSASUN ETA GIZARTE POLITIKARAKO MINISTERIOA. Haurren Behatokia. Haurtzaroa Babesteko Neurrien Buletin Estatistikoa. 2008

[84] Ibidem

2009. urtean, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundietako **gizarte-zerbitzu** espezializatuen artean —arreta psikologikoarekin, tratu txarrekin, familia-arloko esku-hartzearekin, nerabeekiko esku-hartzearekin eta ijito-etniako familiekiko esku-hartzearekin loturikoak—, adingabeen 2.000 kasu inguru izan dira. Ia erdiak (% 47) Bizkaiko programa eta zerbitzuetan artatutako adingabeen kasuak dira (zehazki, Bizkaian % 47, Araban % 15 eta Gipuzkoan % 38)[85].

2010. urtean, **1.034 biktimizazio erregistratu dira 18 urtetik beherakoen artean tratu txarrak eta sexu-askatasunaren aurkako delituak direla-eta**, eta kasuen % 38an egilea familia-ingurunekoa zen, 2008ko ehunekoa baino handiagoa da ehuneko hori (% 32)[86]. Bestalde, 2007an, 49 adingabek –mutilen % 77k– seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria-delituagatiko neurriak ezarrita zituzten, 2004ko zifra baino handiagoa, urte horretan 31 adingaberi ezarri baitzitzaion neurri mota hori –garai hartan 10 adingabetik 9 mutilak ziren, eta horrek erakusten du, beraz, igoera nesken kasuan gertatu dela batez ere–[87].

95. TAULA: ADINGABEEN BIKTIMIZAZIOAK TRATU TXARRAK ETA SEXU-ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUAK DIRELA MEDIO, MOTAREN ARABERA, EGILEAREKIKO HARREMANA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. 2008. eta 2009. urteak

| | 2009 | | | | | 2010 | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Familia-ingurunea | | Familiaz bestekoa | | | Familia-ingurunea | | Familiaz bestekoa | | |
| | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | **Guztira** | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | **Guztira** |
| Delituen guztizkoa | 232 | 198 | 134 | 146 | 710 | 216 | 153 | 117 | 132 | 618 |
| Hutsegiteen guztizkoa | 14 | 19 | 210 | 254 | 497 | 17 | 9 | 140 | 250 | 416 |
| Guztira | 246 | 217 | 344 | 400 | 1.207 | 233 | 162 | 257 | 382 | 1.034 |

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Herrizaingo Saila.

2007. urtean 3.045 **arau-hauste** bideratu ziren Adingabeen Fiskaltzan, eta % 64 Bizkaian. Delitu ohikoenak lesio, kalte eta ebasketekin loturik daude; aldiz, falta ohikoen artean jabetzaren eta pertsonaren aurkakoak daude[88].

96. TAULA: ADINGABEEN FISKALTZAN BIDERATUTAKO ARAU-HAUSTEAK. HUTSEGITEAK ETA DELITUAK. LURRALDE HISTORIKOAK ETA EAE. 2007

| | | ARABA | GIPUZKOA | BIZKAIA | EUSKADI |
|---|---|---|---|---|---|
| **DELITUAK** | Kalteak | 29 | 102 | 380 | 511 |
| | Ebasketak | 39 | 78 | 349 | 466 |
| | Indarkeriaz egindako lapurretak | 11 | 56 | 140 | 207 |
| | Erabilerarako lapurretak edo ebasketak | 2 | 39 | 64 | 105 |
| | Lapurreta, indarkeria edo larderia erabiliz | 0 | 44 | 180 | 224 |
| | Trafikoaren segurtasunaren aurkakoak | 3 | 10 | 5 | 18 |
| | Osasun publikoaren aurkakoak | 1 | 11 | 2 | 14 |
| | Sexu-askatasunaren aurkakoak | 3 | 14 | 21 | 38 |
| | Lesioak | 26 | 122 | 446 | 594 |
| | Bizitzaren eta osotasun fisikoaren aurkakoak | 0 | 2 | 0 | 2 |
| | Etxeko indarkeria eta genero-indarkeria | 13 | 29 | 65 | 107 |
| | Beste arazo batzuk | 2 | 52 | 8 | 62 |
| **HUTSEGITEAK** | Jabetza | 30 | 98 | 169 | 297 |
| | Pertsonak | 20 | 100 | 144 | 264 |
| | Bestelakoak | 4 | 129 | 3 | 136 |
| | **Guztira** | **183** | **886** | **1976** | **3045** |

[85] Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saila, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentua eta Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politikaren Saila
[86] Iturria: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila. Esanbidez eskatua
[87] EUSKO JAURLARITZA. Justizia eta Herri Administrazio Saila. EAEko III. Gazte Justizia Plana. 2007
[88] Justizia eta Herri Administrazio Saila

Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila. EAEko III. Gazte Justizia Plana.

Azkenik, nabarmendu behar da inoren kargura ez dauden adingabeek EAEko gizartean izan duten gorakada handia izan dela, hainbat baliabidetatik eman behar zaielako arreta. 2009ko abenduaren 31n, inoren kargura ez zeuden eta hiru Foru Aldundietako zentroren batean hartu diren **576 adingabe atzerritar** zeuden EAEn; nolanahi ere, inoren kargura ez zeuden eta urte horretan zentroren batean hartu ziren edo hartu diren adingabe atzerritarren kopurua 1.275 da. Horretaz gain, artatu diren, hau da, aurretik ezein zentrotan egon ez ziren adingabe berrien kopurua 587 da[89].

97. TAULA: INOREN KARGURA EZ DAUDEN ADINGABEAK EAE-N. 2009

| | |
|---|---|
| Inoren kargura ez dauden 18 urtetik beherako adingabeen kopurua | 576 |
| Urte horretan, hiru Foru Aldundietako zentroren batean hartu diren eta inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarren kopurua | 1.275 |
| Urte horretan hiru Foru Aldundietako zentroren batean hartu diren eta inoren kargura ez dauden adingabe atzerritar "berrien" kopurua | 587 |

89 ARARTEKOA. Eusko Legebiltzarrerako Ohiko Txostena, Op. Cit.

ikuspegi@k

Gizarte Gaien Behatokiak
Observatorios de Asuntos Sociales

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Departamento de Empleo
y Asuntos Sociales

Enplegu eta Gizarte
Gaietako Saila